En mi intento de recuperarlo, expuse la idea del azeri al entonces presidente de la Sociedad Txantxangorri: Mauri López de Zubiria. Me dijo que mantendría una reunión con los integrantes de la cuerda en la que tratarían mi propuesta. Tras una votación, aceptaron la incorporación del azeri a la Azeri Dantza.

## Pero no todos compartieron la idea. El nacimiento en 1988 del azeri, no fue un parto sencillo.

Al enterarse personas que estaban en torno a la Azeri Dantza, pero que desconocían la propuesta, mostraron su desacuerdo. Por ello, se organizó una reunión en la casa de cultura, Biteri. Acudió mucha gente. Tras una conferencia pronunciada por el etnógrafo Antxon Aguirre Sorondo, tomé la palabra acompañado del dantzari Mikel Intxaurburu –el primer azeri- para explicar la iniciativa.

Cuando comencé a hablar sobre la idea del azeri, algunas personas me silbaron, apagaron la luz... Mikel y yo aguantamos el chaparrón. Después de que se calmara el ambiente, hubo una votación en la sala, a mano alzada, sobre la propuesta de incorporar al azeri a la Azeri Dantza. La votación apoyó la propuesta.



Una de las primeras apariciones del azeri en al Azeri Dantza. Mikel Intxauburu es el "azeri".

#### **¿Tuviste que buscar aliados para seguir adelante?**

Conté con el apoyo de la directiva de la Sociedad Txantxangorri, de Imanol Larretxea, etc. Imanol solamente había conocido la Azeri Dantza de sus padres, etc. Es decir, la dinámica, 'salir y pegar'.

#### **Diseñaste el azeri, la coreografía de los bailes...**

Sí. En la Azeri Dantza existen 'tiempos muertos'. Momentos en los que los integrantes de la cuerda se esconden para irrumpir por algún otro lugar. Para avivar esos momentos, con la ayuda de los txisturales, el azeri, le aporta sostenimiento a la Azeri Dantza.

#### **El azeri tiene su particular historia.**

Cuenta la leyenda que un baserritarra, tras bajar del caserío a una sidrería del pueblo, contó en unos carnavales hernaniarras, cómo se había apoderado del pellejo de un zorro. Lo exhibió. Entre kupelas narró las vicisitudes que vivió en el gallinero para dar caza al zorro: saltando, etc. En la Azeri Dantza, el azeri, hace exactamente lo mismo:

se mueve de un lado a otro, salta... De ahí surgió la idea de la figura del zorro.

#### **El azeri es la guindilla de la Azeri Dantza.**

Sí. El azeri baila por primera vez en la plaza al comienzo de la Azeri Dantza. Después de hacer una reverencia al pueblo con el ayuntamiento de fondo, dirige a los componentes de la cuerda, pero cuando comienzan a pegar se retira y se mueve a su aire a lo largo de todo el recorrido. ¿Su labor? Dar vidilla a los 'tiempos muertos': azuzar, enredar, saludar a los más pequeños...

#### **Hiciste también de sastre diseñando la indumentaria del azeri.**

Así es. Por eso, me da pena que en 25 años se hayan descuidado algunas cosas: el azeri salía con unos cascabeles en los calcetines que avisaba de su presencia, algunos pasos del vals que se baila a la altura del Bar Irizar, han desaparecido... El vals que se baila en estos dos lugares, me gustaría que lo bailara no solo el azeri con una per-



sona, sino que se involucraran todas las personas que en ese momento se encuentren alrededor.

En los primeros años, el azeri, entraba en las tiendas y robaba productos. Eso suponía tener que estar al tanto de él como de la reacción del comerciante.

Efectivamente. Los zorros, roban. Y el nuestro, también. Una vez, el azeri entró en la tienda Oa, cogió unos huevos y huyó pitando. La empleada del establecimiento también; salió como una bala tras él. En otra ocasión, tras robar unos huevos, se los ofreció a una persona. Nada más cogerlos, el azeri, se los revientó en las manos. ¡El zorro en estado puro!

**¿Pensaste en algún momento si la aportación del azeri no cuajaría?**

Tenía fe que no sería un acto puntual y que iba a gustar. La experiencia de la primera edición fue muy positiva y mucha gente me felicitó por el resultado final.

**Conoces muy de cerca la Azeri Dantza.**

Sí. Tras volver del servicio militar, a lo largo de tres años –en la década de los sesenta– fui componente de la cuerda. Para un hernaniarra, salir en la Azeri Dantza, es un orgullo. La única ley que hay entre los componentes es que a la hora de pegar no se debe de soltar nunca la cuerda. Por otra parte, el público debe respetar a los txistularis y a los componentes de la cuerda. Si te pegan, no puedes devolverles los golpes, ni insultarles. El que acude a la Azeri Dantza sabe a lo que va.

**Antes había más opciones de realizar una Azeri Dantza más variada.**

Sí. Algunos establecimientos han cerrado la puerta posterior del comercio. Antes, todos los portales que tenían puerta trasera, solían estar abiertos y eso daba muchas posibilidades para desaparecer y aparecer. He conocido muchos lugares. Por ejemplo, entrar en la cárcava -la callejuela que comienza tras pasar la pequeña puerta que se encuentra detrás de la fuente de la plaza- y llegar, entre casas, hasta la calle “Zapa”.

# AZERIKERIAK

**Mende laurdena bete du aurten azeriak lehen aldiz Azeri Dantzak azaldu zenetik. Erdi ezustean. Nola bestela. Harrez gero, ez du hutsik egin. Esaerak dioen bezala, “Azeri zaharra, goizean goiz lanean”. Xaxatu, probokatu, saltsa sortu, ‘bildotsen’ –herritarren- artean ibili... Izañ ere, “Sortzetik du azeriak maltzurkeria”. 25 urtetan zehar Azeri Dantzak bederatzi azeri izan ditu.**


**MIKEL INTXAURBURU** (Hernani, 1972). Azeri Dantzako lehen azeria izan zen. Garai hartan, Mikelek, dantza askatuko lehiaketetan parte hartzen zuen Gurutze Telleriarekin batera. Bere aitak, Luis Telleriak, Mikelengana jo zuen buruan bueltaka zebilkion ideia proposatzu: “Baietz erantzun, eta aurrera egin genuen”. Orduan, zenbait kuadrillak, Azeri Dantzak barrikadak egiten zituzten, eta sokako partaideek arazoak izaten zituzten aurrera egiteko. Horri aurre egiteko, adibidez, azeriaren sorrerak egoera arindu egin zuen.

“Azeriaren ideia gauza berria izan zen, eta ez genekien nola egin, eta nola asmatu”, dio Mikelek. “Niri, adibidez, azeritxo bat buruan jartzea bururatu zitzaidan. Kili-kolo zegoen azeri disekeztu bat konpondu eta maskara bat egin nuen. Era horretan beldur gutxiago izan nion hasiera hari. Gainera, horri esker, nahiz eta dantzaria aldatu, inork ez zuen jakingo nor ezkutatzzen zen azpian”.

17 urterekin irten zen lehen aldiz Mikel. “Batzuek onartzentzutzen azeriaren ekarpene; beste batzuek, ez”, dio. “Gauza asko aldatu dira harrez gero”. Mikel irina eta arrautzak botatzen... ibiltzen zen; baita dendetan ‘lapurretan’ ere. Zirikatzen. Orain normaltzat ikusten dena, hasiera ez zen hala izan: “Halere, guztia, nahikoa espontaneoa izan zen. Jendeak asko lagundu zidan. Herritarrek etxeetara gonbidatzen ninduten, eta irina, etab. eskatzen nizkien jendeari botatzeko. Ez zen aldez aurretik prestaturiko zerbaite; ‘igo hona’ esaten zidaten. Eta ni, gora, noski!”. Dendetako ‘lapurretekin’ arazo gehiago izan zituen: “Batzuetan, Telleria atzettik ibiltzen zen nik harturiko produktuak ordaintzen!”, dio irribarretsu.

Anekdoa mordo bat ditu Mikelek baina bitxiena etxe batean sartu zenean gertatu zitzaina. “Kale Nagusiko adineko emakume batek bere etxebizitzara igotzeko gonbita egin zidan. Bertara sartu orduko galdezka hasi zitzaidan: noren semea nintzen... Nire amona ezagutzen zuela ohartu zenean, ‘geratu nahi al duzu gosaltzen?’, galdetu zidan. Nik baietz erantzun nion. Maskara kendu eta jaten hasi nintzen Azeri Dantzakoak kalean barrena zebiltzan bitartean. Ordu erdi pasatxo igaro nuen gosaltzen, emakumeak, nire amonaren pasadizoak kontatzen zizkidan bitartean. Amaitzean, bat egin nuen Azeri Dantzarekin”.

Mikel urtetan azeri izan ostean, San Joaнетako Azeri Dantza mistoko partaide ere izana da: “Biek –azeriak eta sokak dute beren xarma; sentazio ezberdinak bizi izan ditut. Bietan, ondo”. Azeri Dantza “herriaren festa” bezala definitzen du, eta azeriak ekimenari “berritasuna eta bizitasuna” eman diola uste du.



**Xabier Zilbeti “azeria”, Xabier Segura eta Luis Telleriarekin, “azeriaren aita”.**

**XABIER ZILBETI** (Hernani, 1964). Azeri Dantzak une ezberdinak bizi izan dituelako gogoratzen du Xabierrek: “Garai batean, adibidez, askotan ez zen jende kopuru nahikoa osatzen sokaroko ere, eta ohikoa izaten zen arkupetatik barrena azaldu eta ‘sokan parte hartu nahi al duzu?’ gonbita jasotzea”. Inguru horretan ibilia da Xabier: sokako partaide, maskuriak eramatzen...

Luis Telleriak Xabierrengana jo zuen azeri izateko Mikelen lekukoa hartu zezan. Herriko Urtza taldean dantza egiten zuenez iritsi zitzaiion gonbita, eta plaza-gizona izateak, aussardia eman eta urduritasunak uxatu zizkion azeri gisa parte hartzeko. Xabierrek markatutako gidoia egiten ei zuen, eta ez zela paperetik gehiegi ateratzen aitortzen du. Ez zitzaiion irina, etab. botatzea askorik gustatzen. Dendaren

batean sartu, eta txorixoren bat lapurtu izana gogoratzen du, baina era sinbolikoan egin omen zuen: "Aldiz, umeek azeriarekiko beldurra galdu zezaten ahalegindu nintzen". Inauterietan oso gutxitan parte hartu izan du - behin edo bitan-, oro har, San Joanetako azeri izan da Xabier: "Garai batean inauterietako eta San Joanetako Azeri Dantzako antolakuntza bi kuadrilla e兹berdin esku zegoenez, horrek ere azeria bat edo beste izatea eragiten zuen". San Joanetako Azeri Dantzako hiru egunak, hernaniarrentzat data bereziak direla uste du: "Egun, Azeri Dantzak izugarritzko arrakasta du; orain, goizean goiz biltzen den jende-tza garai batean ez zen ikusten".

Irizaren aurrean azeriak dantzan duen baltsa berezia delakoan dago Xabier. "Une horretan, adibidez, adineko emakumeren bat... ateratzen ahalegintzen nintzen; pres-tzegoenarekin egiten nuen dantzan".

Azeri gisa, ekitaldi amaierako argazki saioa, Xabierrek ez zuen ia ezagutu: "Nire garaian ez zegoen joera hori nahiz eta azken urteetan indar hartzen hasi. Inork proposatzen zidanean, apur bat harrituta geratzeaz gain, lotsa pittin bat ematen zidan".

Azeriaren ekarpenak, Azeri Dantzari, ikusgarritasun gehia-go eman diola uste du Xabierrek. "Azeri Dantzak, arrakasta, berezkoa du. Bere berezitasunarengatik gustukoa du jendeak. Hernaniarra da; oso gurea. Ikustera joanez, jendea konturatu da era honetako ekitaldiak zaindu eta mantendu egin behar direla. Ez hori bakarrik, baita belaunaldiz belaunaldi helarazi ere". Gaur egun, Azeri Dantza ez litzateke ulergarria izango azeriaren figura gabe; belaunaldi berriek hori ezagutu baitute. "Halere, azeria, protagonista den bezala, nire ustez –azpimarratzen du Xabierrek-, sokako par-taideak Azeri Dantzako heroikak dira".



**LARA MITXELENA** (Hernani, 1985). Txikitian dantzaria izan zenez, Azeri Bila lasterketak antolatzaile batek, azeri gabe geratu zirenez, lasterketaren hasieran dantza egin nahi ote zuen proposatu zion: "Baietz erantzun, eta Azeri Dantzako dantza ikasi eta irten nintzen.

Orditik hamar bat urte igaro dira". Horren ondorioz, hu-rengo urtean, Larari, Azeri Dantzan irtetea eskaini zioten; oraingo honetan, 'ez' erantzun zien. "Lotsa, errespetua... ematen zidan. Neure buruari esaten nion, gauza bat zela leku jakin batean dantzan egitea, eta beste bat oso desber-dina Azeri Dantzan irtetea", dio Larak.

Gonbit berri baten ostean, zalantzak gaindituz, handik urte batzuetara, urrats handi bat ematea deliberatu zuen. 'Ba proba egingo dut ba!', pentsatu, eta parte hartza erabaki zuen. "Baiezkoa esan, eta inauterietan Langile Ikastolak antolatzen zuen umeen Azeri Dantza irten nintzen", gogoratzen du. "Hura izan zen nire lehen esperientzia azeri gisa".

Harrez gero beste bi aldiz izan da Lara azeria: bai inauterietan, eta bai San Joan jaietan. Batean edo bestean azeri rolean aritza, oso ezberdina dela dio: "Inauterietan publi-koia, batez ere, gurasoak euren hurrekin, eta gaztetxoak izaten dira. San Joanetakoa, berriz, beste kontu bat da".

Larak ez du ahazten San Joanetako Azeri Dantza mistoan (ekainaren 27an) bizi izandako uneak. "Esperientzia oso ona izan zen eta oso gustura ibili nintzen", azpimarratzen du.

Azeri bezala irteteko egunaren atarian, bezperan, Larak ez zuen apena lorik egin: "Ezer ere ez! Tximeletak nituen sabelean. Martxan jarri aurretik Coca Cola edaten aritu nintzen indarrak hartzeko". Azeri Dantza abiatu baino lehen, udaletxe atzean egiten dira prestaketetan -abarkak lotu, azeri burua ipini...– "oso-oso urduri" zegoela oroitzen da.

San Joanetako Azeri Dantza parte hartu zuen ekitaldi hura, "oso motza" egin zitzzion, nahiz eta ibilbide guztian zehar jendetza egon. "Hasieran, lehen dantza, urduri egin nuen baina behin Andre kalerantz abiatu orduko asko la-saitu nintzen".

Larari, azpimarragarria egiten zaio hernaniarrek azeriari dioten adeitasuna. Asko errespetatzeaz gain benetan go-goko dute: "Begirunea zaio".

Saioa bukatu orduko, hasieran, Larak ez zuen jendaurrean azeriaren burua kendu nahi izaten; mozorroaren atzean nor zegoen ez salatzeko: "Isilpean mantendu nahi nuen".

Une oro, denek nahi dute azeriaren ondoan egon. "Umeek azeria asko maite dute, nahiz eta beldurtu egiten diren. Horren lekuko, Azeri Dantzaren amaieran, azeriarekin argazkia atera nahi izatea. Izen ere, azeria, nolabait, herriko irudia bihurtu da", dio Larak.



**EKAIN SARDON** (Hernani, 1978). Estreinakoz, 2000. urte baino lehen irten zen Inauterietako astelehen batean, gaztetxoen Azeri Dantzan: "Xabier Segurak ezin zuenez irten, eta berarekin dantzan ibilia nintzenez, parte hartza eskaini zidaten. Ez nuen bi aldiz pentsatu. Gerora ere San Joanetan irtena naiz".

Azeri lanetan aritzea polita dela aitortzen du San Joan egunean jaiotako hernaniar honek: "Herritarrentzat garrantzi handia du Azeri Dantzak. Goizero ikustera joaten den jendetza da horren lekuko. Eta ekitaldiko pertsonaia nagusienetarikoaren mozarropean aritzea ez da ahuntzaren gau erdiko eztula. Alde batetik polita da, baina presioa ere antzematen da; jende guztia ibiltzen da azeriaren atzetik, eta gaztetxoenak inguruan bueltaka aritzen direnez –isatsik tiraka...– estuardi puntu bat ere sumatu izan dut. Halere, oso gustukoa dut".

Haurren begiratua, nahiz eta azeria eurengana hurbildu orduko bat baino gehiago negarrez hasi, une berezia dela aitortzen du, lanbidez, haur hezkuntzako irakaslea den Eka-inek. "Haurrek jartzen duten harridura aurpegia ikustea guztiz pozgarria da; une horiek oso berezi eta politak izaten dira". Inauterietan edota San Joanetan azeri lanetan aritzea "oso bestelakoa" dela aitortzen du Ekainek. "San Joantako giroa desberdina izaten da: jendetsuagoa... Inauterietakoa, berriz, giroz, hotzagoa". Ekainek dio, jendeak ondo ezagutzen duela azeriaren egitekoa, eta baita bera zirikatzeo mugak ere: "Hernaniarrek begiko dute azeria", dio. Horrez gain herritarak, kanpoko jendea etortzen deunan, ahalegina egiten dute ohituraaren nondik norakoa azaltzeko.

Ekain lau bat urtez jardun izan da azeri. Ondoren, sokan ere aritu da: "Azeria edota sokan, baina beti saltsan!", gaineratu du. "Bi sentsazio oso ezberdin dira. Azeri lanetan, protagonista zara. Libre. Zirikatzen. Batera eta bestera,

baina jendea guztia, une oro, aldamenean. Sokan, besete zirrara bat sentitzen da. Talde bateko partaide zara". Sokan, Inauteri zein San Joanetan, Azeri Dantza mistoan irteten da Ekain.

Ibilbidean zehar, Irizar tabernaren parean, azeriak baltsa dantzatzen du. Inguruan ikusi izan duen bakoitzean, Ekainek, ama atera izan du dantzatzera. "Une berezia izaten da berari ilusio handia egiten baitio. Gero, argazkia ere atera nahi izaten du. Biok pozik. Mutilek ere nirekin dantzan egiteko ahaleginak egin izan ditut. Eta bat baino gehiagok atzera egiten duen arren lortu izan dut, inork, azeri-rekin dantzatzea", dio.

**JON GOÑI** (Hernani, 1975). Kale Nagusikoaren parte hartzea Azeri Dantzan, "nahikoa bitxia" dela aitortzen du. "Jon Alejos –Azeri Dantzako soka-burua– eta biok kuadrilla berekoak gara, eta beti Azeri Dantzarako jendea behar zela esaten aritzen zitzagun. San Joanetan, mistoa irteten hasi zen lehen urteetan, sokan aritzen zirenei gogorra egiten zitzaien hiru egun jarraian joka irtetea. Beraz, jende bila hasi ziren. Hala, egin nintzen sokako partaide Azeri Dantza mistoan". Handik denbora batera, Jonek parte hartzeari utzi egin zion sorbaldatik gaizki ibiltzen baitzen.

Baina, behin, itzuli egin zen. Eta nola gainera. Beste rol batean. "Urte batean, inauterietan, Mikel Intxaurburuk azeri izateari utzi eta sokan irteteko asmoa azaldu zuenez zirkatzen hasi zitzaidan azeri lanetan ordezkatu nezan. Nik hasieran ezetz esan nion. Baino halako batean, dantza ez nekienez, pauso batzuk ikasi, eta irten nintzen. Horrela engainatu ninduen! 'Bat eta bakarra', esan nuen neure artean", dio Goñik. "Irizar taberna aurrean, baltsean, norbaitek nirekin dantzan egin nahi ote zuen ahalegindu arren, ez nuen lortu. Uste dut, azkenean, udaltzain batekin aritu nintzela.

Azeri Dantzan zehar, irina eta halakoak botatzen ere ibili nintzen jendartean... Lotsa askorik ez dudanez, esperientzia polita izan zen".

Jonek izan du beste gertakari berezi bat ere. "Duela sei bat urte, San Joan jaietako goiz batean, gaupasa egin ondoren, bi lagun eta ni, Santa Barbara elkartera hamaitakoa egitera gindoazela, sokakoak Errioguarda jatetxean sartzen hasi orduko, builaka, zirkatzen hasi gintzaizkien: 'Lasai ez dira etorriko', pentsatu nuen nire baitan. Guk ez genekien baina beraien artean hitz egin, eta Kale Nagusiko lanak amaitu ostean, sokako partaideak ezkutatu zirenean elkartean sartu, gu aulkikitik altxarazi, eta hirurok ederki 'berotu' gintuzten. Astindu hura ez dut sekula ahaztuko!". Egun hartan, Jon azeria, ehizatu egin zuten. Eta nola gainera.

Goñik, Azeri Dantzaren alde guztiak ezagutzen ditu: maskuriaren laztanak jasotzea, maskuriarekin astintzea, dantzan aritzea, eta orain, etxekoei erakustea. "Haur txikiak izanik, ohitura beraiei hurbiltzen ahalegintzen gara".

**MAIDER GARMENDIA** (Hernani, 1979). Azeri Dantzan parte hartzeako aukera iritsi zitzaionean Mikel Intxauburu eta Xabier Zilbeti ziren azeriak. Inauteri batzuetan batari zein besteari, parte hartzea ezinezkoa zitzaienez, eskaintza jaso orduko, 'bai' erantzun zuen. Urte batzuk joan dira ordutik. "Harrez gero, lau bat aldiz, aritu nintzen azeri lanetan", ondo gogoratzen du Maiderrek. "Beti inauterietan irten nintzen, Langile Ikastolak antolatzen zuen Azeri Dantzan, alegia".

Herrian hain sustraitua dagoen ohituran, azeria izatea pribilegioa dela aitortzen du. "Azeria, ekitaldiko gatza eta piperra da, Azeri Dantzari bizia ematen diona. Zereginean erabat murgiltzen nintzen; jendearri arrautza eta irina botatzeraino", dio irribarretsu. "Irinarren kontura oraindik ere norbait gogoratzen da nitaz...." Bere ustez, Azeri Dantza, azeria izatea, ez da mozorroa janxtea soilik; musika entzuteak, jada, oilo-ipurdia jartzen dio. "Jendearekin izaten den 'jokoa' ere, oso polita izaten da: helduek errespetatzen zaituzte-aizeriari maitasun handia diote-, baina haurrek... Hori beste kontu bat da: isatsetik tiraka... aritzen zaizkizu. Azken fi-nean, umeak ume baitira".

Sokan, Maider, San Joan zein inauterietan Azeri Dantza mistoa egiten hasi zen lehen urteaz geroztik irten izan da. "Sokak bere xarma du, baita azeri izateak, noski! Bi lan ezberdin dira. Baina politak oso". San Joaнетako Azeri Dantzak, erakargarritasun beretza du Maiderrentzat. "Sokakook irrikatan egoten gara jendea berotzeko; eta era berean, jendea grinatsu astindua izan dadin. Bitxia, ezta? ". Une politak bizi izan ditu urte hauetan guztietan, euripean nahiz izerditan blai. Herritarren begirune eta eskuza-baltasuna ere antzeman du. Adibidez, Zaraguetatarren etxean: "Sokako partaideok bertan ezkutatzen garenean, urtero-urtero, Vicente Zaraguetak, lokarriko emakumeoi, cava kopa bana es-kaintzen digu. Emakumeei soil-soilik. Tragotxoa edan eta berriz ere kalera irteten gara azken txanpa egitera!".

Inoiz ez du Azeri Dantzaren bezperan lasai afaldu eta lo egiten Maiderrek. Eta urteak daramatz! "Ez naiz ohitzen. Sokan irteten naizenean, adibidez, badezpada ere sugusak eramatzen ditu poltsikoan. Oso urduria naiz, beraz, plaza iristen garenean, asko pozteaz gain lasaitu ederra hartzen dut".



**AITOR PARRONDO** (Hernani, 1975). Ez zen luzea izan Aitorren parte hartza Azeri Dantzan. Sartu-irten moduko bat izan zen. "Behin bakarrik izan naiz azeria: 1990ean. Gaztea nintzen parte hartu nuenean; 15 urte nituen".

Inauterietakoan parte hartu zuen. "Mikel Intxauburuk egun batetan irteterik ez zuenez eta ni dantzan aritzen nintzen, irteteko esku zidaten". Hasieran ezetz borobilez erantzun zien Aitorrek; ez zuela bere burua ikusten halako ekitaldi hain berezi batean. Jendetza, hau da, aglomerazioak, Aitorri ez zaizkio batere gustatzen. "Bestalde, nahikoa lotsatia naiz, eta Azeri Dantzako azeria izatea handi gelditzen zitzaidala esan nien".

Antolatzaileek ez zuten etsi eta berriz ere beregana jo zuten azeria izan zedin. Aitor dantzan maiz ibiltzen zen orduan eta dantza-tu beharrekoan ondo baino hobeto ezagutzen zuenez -nahiz eta pausoak, oraindik, oso finkoak ez izan- iritziz aldatu zuen. Halako batean, antolatzaileen ahaleginak bere saria jaso zuen: "Azke-nean baietz esan nien; Azeri Dantzan parte hartuko nuela, alegia".

Dantzaria, Azeri Dantzan, mozorroaren atzean ezkutatzen da. Eta Aitor, horren adibide da. "Gogoratzen dut aurreko egunetan oso urduri ibili nintzela. Horrez gain, Azeri Dantza hartan herritar pi-loa, jendetza, bildu zen. Batzuetan ezin pasa ibili nintzen".

Luis Telleriak –azeriaren sortzaileak- gomendio batzuk eman zizkion; dendetara sartu eta arrautzak hartzeko, irina botatzen aritzeko... Azeriaren pikardiak, alegia. "Ni lotsatu egiten nintzen nahiz eta egun batzuk lehenago mentalizatzen aritu. Egia esan, guztia, goitik behera, oso prestatuta eraman nuen". Nahiz eta kezkati ekin, zalantzak uxatu orduko, Aitor, konforme geratu zen bizi izandako esperientziarekin.

Azeri Dantzan irten baino egun batzuk lehenago, bestalde, Aitorri, aiton bat hil zitzaison: Juanito Arrondo. "Urumea kalean bizi zinez, oso 'azeri-dantzazalea' zen. Beraz, Azeri Dantza hura berezi samarra izan zen niretzat", aitortzen du.

Esperientzia hartatik gaur egunera, aldaketa bat antzeman du Aitorrek: azeriaren 'denda lapurretak'. Urritu egin omen dira. Aitorrek orain Azeri Dantza jendartean ikusten du bere hiru semeekin batera. "Hernanin bizi ez arren, iragan San Joaнетan, hiru egunean etorri nintzen beraiekin batera ekitaldia ikustera. Txikiak izan arren ez dute batere beldurrik, eta primeran pasatzen dute!".



**AIMAR ABAD** (Hernani, 1990). Duela zazpi urte hasi zen Azeri Dantzan irteten Aimar. Azeri lanak egiten zituenak ezin zuenez irten, eta bera dantza askatuan urte piloan ibilia zenez, parte hartzera gonbidatu zuten. Inauterietako Azeri Dantza batean irten zen lehen aldiz. Debutean ez zen batere urduritu Aimar: "Jendaurrean dantzatzen ohituta nengoenez ez zitzaidan zaila egin. Guztiz kontrakoa. Oso gogotsu nengoena". San Joanetako Azeri Dantza, maskurien kolpeen hartzaile gisa, gogoko zuen, beraz, azeri izateko hots egin ziotenean izugarri poztu zen. "Or-dutik urtero deitu didate, eta ez dut inoiz hutsik egin; ez inauterietan, ez San Joanetan ere".

Sokako partaide ere izan da Aimar. Bi aldiz. Inauterietako Azeri Dantza mistoan. "Bi jardun ezberdin dira. Azeri bezala, guztien ahotan zaude, denak daude zuri begira. Sakan, taldeko beste partaide bat zara". Beraz, Aimarrek jendea berotu izan du. Eta baita berotuta amaitu ere. Eta ia-ia baita min hartuta: "Azeri gisa irten nintzen goiz batean, mutil koskor baten atzetik irten nintzen maskuriarekin jo asmoz. Plaza Berrikit Zinkoenea bitartean dauden euskarri baten kontra kolpe ederra hartu nuen. Jendeak, zutitzen lagundu ninduen. Hura kolpea, eta hura lotsa!". Aimarrek, ez du zalantzak Azeri Dantzan irteteko. Sasoian

**XABIER SEGURA** (Hernani, 1984). "Ni irten aurretik Mikel eta Xabier Zilbeti izan ziren azeri urte dezentetan. Halako batean, txanda eske zebiltzanez, Luis Telleriak niregana jo zuen. Dantza askatuan ibiltzen nintzen orduan", gogoratzentzu du. Xabierren aitona, Enrique Esteban, eta aita, Jose Angel Segura, biak, Azeri Dantzan –sokan– ibiliak ziren. "Eskaintza jaso nuanean, parte hartzera animatu nintzen. Halere, aita eta biok ez dugu inoiz aldi bearen parte hartu; berak utzi zuanean, ni hasi bainintzen".

Estreinako aldiz, Xabier, 2001ean irten zen Azeri Dantzan: 17 urte zituen. San Joan jaietan egin zuen debutua; ekainaren 27an, Azeri Dantza mistoan. Bi egun lehenago, 25ean, Luis Telleria, Xabier Zilbeti eta hirurak Azeri Dantza hasi aurretik bildu ziren. "Egun hartan Zilbeti irten zen, eta ni, Telleriarekin batera kale buelta eman nuen jendartean bere gomendio eta iradokizunak entzuten. Nire kasara, lasai, ibiltzeko esan zidan. Dantzatzen ziren pausoak ezagunak nituenez, hasierako beldurrak uxatu eta aurrera egin nuen".

Irten bezperan lo lasai egin zuen Xabierrek, nahiz eta ohetik altzatzeko ordua iristean lo hartuko duen kezka izaten duen beti. Urtero urduritasun puntu hori ere inguruan izaten du. Beti hor dago. Duela hamabi urtez gero, inauteri zein San Joanetan



egoteak garrantzia handia du: lan batean zein bestean. "Behin gaupasa egin ondoren irten nintzen. Eta ederki dama mutu nintzen! Harrez gero, bezperan, lo ondo eginda altzatzen naiz, goizean fresko-fresco egoteko. Ibilbidea ez da luzea baina denbora guztian, korrika, dantza... ibiltzeak nekatu egiten du. Eta sokan irtenez gero, zer esanik ez! Maskuria eramatzen duen besoak, leher eginda amaitzen du". Azeri Dantzan irtetea, Aimarrek, behin eta berriz plazerra dela esaten du. Lokarriko kide bezala, adibidez, partaide guztiak han eta hemen gordetzen direnean, herriko txoko ezkutuak bertatik bestara ikustea zorte handia dela dio. Gutxi batzuen esku dagoen aukera.

Ekitaldiko une politenetarikoa, ibilbidea amaitu ordukoa dela uste du Aimarrek. Hau da, plazan, azeriari hurbiltzen zaion jendetza, alegia. "Guraso asko, euren seme-alabekin arrimatzen zaizkit argazkiak ateratzen". Denbora pasatzen du denen eskarriak asetzan. Horrez gain, badago bere ustez beste une berezi bat. Guztia amaitu orduko, partaideek elkarrekin egiten duten hamaiketakoa. "Hori ere, primerako saria izaten da!", aitortzen du Aimarrek.

parte hartu izan du: "Ekainaren 25ean ez dut hutsik egiten". Aurtengoa berezia izan da gainera. Azeria, duela 25 urte jaio zela ospatzeko Txatxangorri Elkarteak prestaturiko oroigarria, Luis Telleriak, Xabierren eskutik jaso zuen.

Xabierrek, pertsona lasaia dela aitortzen du. Ez ei da Azeri Dantzan estutzen. Halere, traba batzuk gainditu behar izaten ditu. Azeriak buruan eramatzen duen maskarak bero galanta ematen duela azpimarratzen du Xabierrek: "Hartzen den arnasa berriro ere barrura doanez, ez zara erabat erosu ibiltzen". Eta begietako zulotxoetatik ez ei da askorik ikusten. Beraz, galtza bete lan izaten du azeriak. "Urduritasun edo lotsa puntu handiena Portalondo eta Irizar tabernaren parean izaten dut. Ordura arte jendea sokako partaideen zelatan egoten da. Bi leku horietan, berriz, begi guztiak nire gainean sumatzen ditut". Irizarrenean, adibidez, baltsa dantzatzea ohikoa da. Behin, "Peter" Antsorena txistularia, herriko txistulariekin jotzen eterri zela aprobetxatuz, Xabierrek berarekin batera dantzatzen gonbidatu zuen.

Azeri Dantza amaitu orduko, berriz, 'eskarien unea' iristen da. Hots, haurrekin argazkiak ateratzeko momentua. Eta gero, saria. Hau da, dutxa on bat hartu, eta hamaiketakoa sokako partaideekin: eguneko anekdoten bilkura, alegia.



# HERNANIKO GOTORLEKUAK (II): KARLISTADETAKO OROITZAPENAK

Alfredo Moraza Barea (Aranzadi Zientzia Elkartea)



Hernaniren ikuspegia Astigarragako bidetik XIX. mendeko lehen herenean; eskuinean, Santa Barbara baseliza (Henri Wilkinsen litografia).

Hernanik, historian zehar, gerra-gatazkek eragindako inpaktua jaso du. Horrek eragin berezia izan zuen XIX. mendearen, eguneroko bizitzaren bilakaera nabarmen aldarazi zuten zenbait gatazka gertatu baitziren mende honetan. Honako testu honek garrantzi handiko gertaera horien gaineko oroitzapena berreskuratzea du xede, Hernanin oraindik ere oso hondakin interesgarriak eta gutxi ezagunak gordetzen baititugu lekuko gisa.

2012ko urtekarian azal gainetik aztertu ahal izan genuen bertako gotorlekuen bilakaera, herribildu hau sortu zenetik Gerra Napoleonikoak piztu ziren arte. Orain gure helburua kontakizun horrekin jarraitzea da, Karlistadetan arreta jarrita, bai Lehen Gerran (1833-1839) bai Hirugarren Gerran (1872-1876) gertatutakoak ulertzeko asmoz. Bi gatazka horietan Hernanik protagonismo handia izan zuen, hamaiaka bat istilu, setio luze eta bombardaketa suntsigarriren lekuko izan baitzen. Protagonismo horren arrazoia erraz da ulertzeko kontuan hartzen bada estrategikoki kokatuta zegoela gurutzegune garrantzitsu batean, eta batez ere, Donostiako hiriburura zeraman bidearen giltza bere eskuetan zeukala.


## LEHEN KARLISTADA (1833-1839)

Gatazka honen jatorria –edo, hobeto esanda, aitzakia– Fernando VII.aren heriotzaren ostean sortutako ondoren gotza-arazo dinastiko batean bilatu behar da, 1833ko irailean. Monarkia absolutuaren aldekoek On Karlos infantea (Karlos V.a intitulatua) hartu zuten buruzagitzat, hildako erregearen anaia alegia; erreformistek edo liberalek, ordea, Fernando VII.aren alaba babestu zuten, Isabel infanta alegia (geroko Isabel II.a). Eskubide horien aldeko lehiak, hurrengo mendera arte hainbat fasetan luzatuko zen enfrentamendu zibil bati eman zion hasiera. Gatazka hau, ordea, dagokion testuinguruan koka- tu beharra dago, Europako parte handi batean iraultza ugari ari ziren gertatzen. Euskal Herrian, gainera, gatazka hau modu aski nabarmenean korapilatu zen, arazo oso ezberdinak nahasten baitziren, alde batetik foru pribilegioetan oinarritutako erregimen tradizionalaren aldekoak eta beste alde batetik liberalismoaren eta euskal lurraldia esparru nazionalaren barruan sartzearen aldekoak, eta horri gehitu beharra dago antzinako batasun katolikoaren aldetik iristen ziren mehatxuak eta ekonomikoaren ekoizpen-sistema tradizionalak.

Karlisten eta liberalen (*cristino* edo *guiri* izenekin ezagunak) arteko lehen gatazka armatuak bat Hernan-


nin gertatu zen. 1833ko azaroaren 17an, Lardizabalen agindupean zegoen talde karlista bat garaitua izan zen herriaren ingurueta. Ondorengo hilabeteetan matxinatu-en presioak bere horretan iraun zuen, 1835. urtean ia lurralte osoaren gaineko kontrola eskuratu zuten arte, gobernuaren aldeko indarren esku Donostiako hiriburua eta Getaria besterik ez baitziren geratu. Une horretatik aurrera, fronteko lerroa Donostia ingurueta egon zen, San Bartolome komentu zaharraren parean; Hernanin, berriz, Gipuzkoako indar karlistek euren Kuartel nagusia jarri zuten.

Uste ez bezala, eta kokalekuaren garrantzi estrategikoa gorabehera, Hernaniko karlisten defentsak garrantzi gu-txikoak ziren. Herrigunearen perimetroa parapetoekin eta murru gezi-leihodun batzuekin babesturik zegoen, gehientsuenak Donostia hiriburantz begira jarrita. Defentsa-sistema osatzeko obra txiki batzuk eginak zituzten (bateriak eta lubakiak gehienbat), inguruko muinoetan. Defentsako bi atal nagusiak Oriamendi Gotorlekua eta horren inguruaren egindako beste gotorleku batzuk ziren, baina batez ere, eta bereziki, Santa Barbara Gotorlekua. Azken honen eta herrigunearen artean bazegoen beste gotorleku bat Txantxilla ingurueta, bi posizioen arteko komunikazioak ziurtatzeko balio zuena.



Karlisten defentsa-sistema Hernani ingurueta, 1836ko abuztuan.

## Ruinas Daciz




Este edificio es de la villa de  
Alcañiz construidos con ladrillo y mortero.  
En la parte superior  
El principal objeto es en cubrir la muralla  
que se proyecta por la parte donde esté el  
río Guadiana. Dentro, tienen una  
sala rectangular con alrededor de diez metros de fondo  
y la puerta de la muralla que viene de  
la villa de Alcañiz al NO del río.  
Cada uno de los muros tiene una  
puerta rectangular y un arco de medio punto  
que lleva a la otra puerta.

Este fortín es de ladrillo y mortero.  
Muy bien conservado y se aprecia la  
estructura de piedra dentro de la muralla.  
La puerta del lado oeste es de medio punto.

Dibujo \_\_\_\_\_

## Torre de Tolosa



Este fuerte es de la villa de  
Alcañiz sobre el Camino de Toledo, con ladrillo  
y mortero, levantado para proteger las vías de  
comunicación entre el Río Tajo y el Río Guadiana.

Este fortín es de piedra y mortero y se aprecia  
que es de planta cuadrangular y tiene una torre  
a los lados de la parte superior.

Este fortín es de piedra y mortero y se aprecia  
que es de planta cuadrangular y tiene una torre  
a los lados de la parte superior.

Este fortín es de piedra y mortero y se aprecia  
que es de planta cuadrangular y tiene una torre  
a los lados de la parte superior.

Este fortín es de piedra y mortero y se aprecia  
que es de planta cuadrangular y tiene una torre  
a los lados de la parte superior.

Este fortín es de piedra y mortero y se aprecia  
que es de planta cuadrangular y tiene una torre  
a los lados de la parte superior.


Este fortín es de piedra y mortero y se aprecia  
que es de planta cuadrangular y tiene una torre  
a los lados de la parte superior.

Este fortín es de piedra y mortero y se aprecia  
que es de planta cuadrangular y tiene una torre  
a los lados de la parte superior.

Este fortín es de piedra y mortero y se aprecia  
que es de planta cuadrangular y tiene una torre  
a los lados de la parte superior.

Dibujo \_\_\_\_\_

Daoiz eta Tolosa gotorlekuen planoak, liberalek eraikitzutzen herria defendatzeko.



**Yarzagaña gotorlekuen planoa.**

Hurrengo hilabeteetan gatazkek gogotik jarraitu zuten aurrera, eta borrokaldi armatuei esker gobernuaren aldeko indarrek pixkanaka galduak zituzten posizioak berrreskuratu zituzten (San Bartolomeko eta Aieteko ekin-tzak 1836ko otsailean eta maiatzean hurrenez hurren, eta Oriamendiko gudaldia 1837ko martxoan). Harik eta 1837ko maiatzean liberalen eraso berri batek lurraldoko udalerri estrategiko askotxo (Urnieta, Oiartzun, Irun eta Hondarribia) berreskuratzeko aukera eman zien arte, eta horietako bat Hernani izan zen. Liberalen indarrak herrian sartu ziren ia-ia erresistentziarik topatu gabe, lehen-dik hustuta baitzegoen eta ia-ia hiri mortu bat zen. Orduz geroztik fronteko lerro berri bat hantxe kokatu zen, eta gatazkaren bukaerara arte iraungo zuen; ziur aski, herniarriak gobernuaren lerrorik aurreratuenetako eta arris-kutsuetako batean zeuden.

Garaipena erabatekoa izan bazeen ere, gobernuaren aldekoen posizioa berez nahiko ahula zen, eta horregatik era-baki zuten defentsa-lerroak albait lasteren sendotzea. Lanak azkar-azkar egin ziren, urtebete eskasean buku-tu zituztelarik. Julio Angulo eta Rafael Lara ingeniariek 1838ko uztailean idatzitako txosten batean, Hernaniko Udal barrutian egindako babes lanak zehaztasun handiz deskribatuta daude.

Herria batez ere Iparraldeko eta Mendebaldeko fron-teetatik inguratua zegoen, Agustindarren Komenturai-

no zabaltzen ziren lurrez eginiko parapeto eta lubaki batzuekin, horien eraginkortasuna nahiko eskasa bazeen ere, etsaiaren artilleriako inpaktuen aurrean. Defentsa sistema osatzeko, tamaina txikiko zenbait gotorleku ego-kitu zituzten inguruko leku garaietan: **Daoiz gotorlekua** herritik Ipar-Mendebaldera zegoen, Txantxilla inguruetan, karlistek lehendik eginak zituzten gotortze-lanak aprobetxatzen zituen eta herribilduarekin lotuta zegoen kaponera edo gotorturiko bide baten bidez (fusilarientzako lubaki bat eta gezi-leihoa zituen); **Tolosa Gotorlekua** herritik Hego-Mendebaldera zegoen, Tellerigain aldean, eta Errege bidea babestea zuen helburu; **Yarzagaña Gotorlekua** herritik Hegoaidera zegoen, izen be-reko muinoan, Portu auzoaren gainean; Arkupe Etxea Pi-tikar baserriarekin lotzen da, lubaki batekin inguratu eta baoetan gezi-leihoa jarri zituzten. Eta azkenik, **Lutxana Gotorlekua** (izen hori eman baitzioten Santa Barbarako gotorlekuari), sektore horren defentsarako garrantzi ezin handiagokoa bilakatua. Horren oinplanoa lurreko irregulartasunetara egokitutik dago, garainera ezberdinetan jarrita dauden bi sektorez osatua, biak elkarrekin lotu-ta fusilarientzako kaponera edo pasabide gotortu eta gezi-leihodun baten bidez. Behealdean soldaduentzako bi kuartel, uraska edo ur-tanga bat eta bi bolborategi eraiki zituzten, eta baseliza zaharra ere egokitutzen (ofizialen egoitza modura erabilia). Gainera, artilleriako hiru baterien babesera ere bazuen. Goiko sektorea tamaina aldetik txikiagoa zen eta horren gainean blokao bat edo



Lutxana edo Santa Barbarako Gotorlekuaren inguruko oinplanoa (1838).

Iau angeluko oinplano batez osatutako gotorleku bat jarriz zuten, 4 metro altuerakoa, eta telegrafoa.

Defentsa hauek osatzeko, bigarren lerro bat antolatu zuten, arinagoa eta atzerago jarrita, eta Oriamendiko defentsa lerroa deitu zioten. Lerro honek gotorleku horretan izango du bere euskarri nagusia, garrantzi txikiagoko beste gotorleku batzuen bidez errematatuta, hau da, Iribarren Gotorlekua (Ollomendi gainean, Lore-Toki ingurueta), O'Donnell Gotorlekua (Oiaolagaina muinoan, Oriamenditik Ekiaderra) eta Aramburo Gotorlekua (Aranburu baserritik gertuko muino batean), horiek guztiak Donostiako udal barrutiaren barruan jada.




Hernanik jasandako bombardaketei buruzko grabatua (The Civil War in Spain liburuan jasoa).


#### HIRUGARREN KARLISTADA (1872-1876)

Gatazka amaiturik, gobernuaren aldeko agintariek gotorleku guztiak sistemotikoki suntsitzeko agindua eman zuten, etsaietik horietaz berriro baliatu ezin izan zitzaten. Hala eta guztiz ere, inguruko gotorleku nagusiak, Santa Barbara Gotorlekuak alegia, okupatuta jarraitu zuen, hasierako zereginetako asko eta asko betez eta goarnizio txiki batek zainduta (kokaleku honen bilakaera historikoa zehatz-mehatz ezagutzeko, kontsultatu 2005eko urtekaria).

Hainbat hamarkadatan bakean bizi ondoren, orduko krisi politiko eta ekonomikoak zirela-eta karlisten aldarrikapenen txingarrak berriz piztu ziren eta 1872ko maiatzean altzamendu berri bat gertatu zen, oraingoan Karlos VII.a errege-gaiaren banderapean (urrekoaren biloba zen). Gertaeren bilakaera lau hamarkada lehenago ikusitakoaren antzekoa izango da, hau da, karlistak ia lurralte osoan nagusitu ziren, kostaldeko zenbait tokitan izan ezik (Donostian, Pasaien, Irun-Hondarribian eta Getarian izan ezik). Horiei Hernani batuko zaie, sektore horretan gobernuaren aldekoek zeukaten posiziorik aurreratuena bilakatu zelarik, etsaien indarrek erabat inguratuta egon arren. Hernanik eskainitako erresistentzia gobernuaren aldekoek euren kausaren ikur bihurtu zuten, herriaren aldeko hamaika abesti, bertso eta beste hainbat aipamen eskaini zizkiotalarik, "Herribildu Garaitugabea" ohorezko



Hernaniko defentsak (1838koak eta 1876koak) elkarrekin alderatzeko taula.



titulua eta guzti bereganatz, Koroak berak emanda, egin zuen ahalegin itzelaren omenez (1875eko abendua).

Baliabiderik ez zeukatenez, biztanleria hornitzeko horrigaiak eta nahitaez ekarri behar zituzten hiriburutik, Aieteko errepidean zehar, karlisten indarren jazarraldia ibilbide guztian jasaten zuten konboi militar batzuen bitartez, joan-etorri bakoitza halako odisea bat bilakatzeraino. Hornidura-arazo hauek gehitu beharko zaizkie inguruko karlisten bateria ugariet etengabe egiten zituzten bombardaketei. Bonbardaketa hauek 1874ko ekainean hasiko dira eta hogei hilabetez luzatu, gatazken bukaera-egunaren bezpera arte. Trillo jeneralak idatzitako txosten batean, Gipuzkoako indar gobernutarren komandantea baitzen, 1875eko urrian hitzez hitz honako zioen: “el enemigo sigue cañoneando con bárbara insistencia las plazas de Hernani y Guetaria, sin la esperanza de tomarlas y sólo por el placer de destruirlas”. Politika honen ondorioak ikaragarriak izango dira Hernanirako, hildako eta zauritu ugari utzi baitzitzuten (63 hildako eta 200dik gorako zauritu), eraikin ugari suntsituta (horien artean udaletxea) eta industria-sarea, baserriak, soroak eta zuhaitziak ondatuak edo ia erabat suntsituak.



**Hernaniko udaletxea karlisten granada batez suntsituta, olio-margolana. Aldamenean elizako atarian kokatutako danborra.**

Herriaren defentsa oso mugatuta egongo da, gobernuaren aldeko indarrek kontrolpean zuten lur-eremu nahiko eskasa izanik, lehiakideek okupatzen zituzten posizioen planoetan ikus daitekeen moduan. Defentsako posizio berria Santa Barbara Gotorlekuan kokatuta egongo da berriro, garai hartan ezin hartuzkotzat jotzen baitzen. Defentsa horren oinplanoa Lehen Gerran altzatutakoaren antzekoa izango da, zenbait aldaketa egin bazizkioten ere: baterietako bik oinplano zirkularra izango dute; uraska berrituko dute; jatorrizko hiru sarbideak bakar batean batuko dira; eta azkenik, kuartelen kokapena berrantolatuko da.


Herrigunea ere osorik gotortuko dute, bertan lehendik bazeuden eraikinak aprobetxatuz, baoak tapatuz eta gezi-leihoko eginez, kaleetan barrikadak altzatuz eta era askotako obra multzo baten bidez (murru, danbor, bateria eta gotorlekuen bidez) perimetro osoa indartuz:

- Herribilduaren perimetro osoa itxi zen, batuetan oin berriko murru batzuk eraikiz eta beste batuetan barateetan bazeudenak berrerabiliz. Urumeara agertzenen frunte-lerroan fusilarientzako gezi-leihoko batzuk egin ziren. Murru hauen zimenduak oraindik ikus daitezke herrigunearen hainbat tokitan, nahiz eta denborak desitxuratuak eta arrestiko obrek aldaraziak egon: Atzieta aldean zabaldutako baratzeen arteko murruean; Pana parkearen inguruan edo Balantxako al-dapa-igoeran; Izpizua eta Elkano kaleetan parroquia-eliazari inguratzen zaion petrilean (fabrikako hainbat lan eta hainbat bao itsutsu ikus daitezke-eta bertan); eta azkenik, Leokako iturriaino zeraman bide babestuan.



**Ezkiaga pasealekuaren inguruko murrua, Karlistada garaian eraikia herrigunea defentsarako.**

- Herrigunearen barruan lau danbor egokitu ziren: bata Portalondo etxeko surrealdean; beste bat “Zapa” kaleko atarian (Atzieta, 41); elizako surrealde nagusian; eta azkenik Kale Nagusiaren Iparraldeko muturrean. Horiek guztiak oinplano zirkularra zuten, gezi-leihokoak zituzten eta solairu bakarrekoak ziren, eliza izan ezik (bi solairu zituen-eta).
- Fronte-lerrik aurreratuenean eta etsaien bonbarik gehien jasan zituen hartan, Urumeara agertzen den hegia zegoen, eta hiru bateria jarri zituzten bertan. Hauen helburua etsaiaren artilleriako suariaurregitea zen, bai eta beren kanoiekin etsaien posizioak zigortzea ere. Bateria hauetako bakoitza, erasoak zetozentz alderantz zegoen jarrita: Orkolaga eta Igartzagaina alderantz (Barrenetxea Gotorlekuaren ingurueta, hiru kanoi-zulo zituen); Astigarraga alderantz (kanoi-zulo bat zuen, Patatera etxe ondoan zegoena); eta azkenik, Santiagomendi eta Antonenea alderantz (beste kanoi-zulo bat).
- Defentsa-sistema osatzeko hainbat gotorleku zeuden perimetro osoan sakabanatuta: Lizarraga Gotorlekua, herrigunetik Iparralde bete-betean jarria, Agustindarren Komentutik hurbil zegoen etxe gotortu bat baino ez zen, gaur egungo Zinkoenea plazan



Karlisten eta liberalen arteko posizioak 1876ko otsailean, gerratea bukatzeko unean.

kokatua; Santo Domingokoa, gaur egungo Izpizua 10 zenbakian dagoen etxearen alboan kokatua, eta esparru apal eta txiki batez osatua egoteaz gain, hobit bat ere bazuena; Birebengoa, izen bereko etxe gotortu bat (gaur egungo Nafar kalea 12); Paissacekoa, inguru horretako posiziorik aurreratuena, Leokadisti izeneko etxearen gaineko muino txiki batean jarrita. Oinplano erdizirkularra zuen dorretzar gezi-leihodun bat zen, 7 m diametrokoa eta 6 m altukoak, hobitxiki batez inguratua; eta azkenik, Barrenetxeakoa, herrigunetik Hego-Ekielde bete-betean kokatua (gaur egungo Goiz Eguzki izeneko lekuaren), eta fusilarientzat prestaturiko 4 m altuerako lurrezko parapeto batet osatua zegoena.

Beste aldean, karlisten aldean alegia, inguru horietan egindako defentsako lanak batez ere bateria batzuk izan ziren, Hernaniko biztanleei erasotzeko eginak. Gobernuaren aldeko baterien kasuan ez bezala, karlisten bate-

riei buruzko deskribapenik edota planorik ez daukagu; oro har, nahiko eraiketa simpleak izango ziren, bi edo lau piezakoak. Lurrezko parapetoekin edo zakuekin babes-tuta egongo ziren, eta atzealdean hornigaiak, bolbora, balaketa artilleriarien euren babeserako etxola bat edo beste egongo ziren, eta ziur aski, hobiz eta lubakiz osatutako babes-sistemaren bat ere bai. Muinorik garrantzitsuenetan jarri zitzuten, handik arazo handirik gabe kontrolatzen baitzuten Hernani osoa. Muino horien arretik nabarmenenak eta eraginkorrenak Santiago mendin jarritakoak ziren, nahiz eta beste toki batzuetan bateria gehiago jarri, besteak beste, Arrikarteko Haitzean (gaur egungo Elutxeta sagardotegiaren gainean); Basaunen (Urnieta Goiburu auzoan) edo lartzagainen eta Orkolagagainen, herribilduko murruetatik 500 metro eskasera. Herribildua azpiratzea baino gehiago, horien zeregin nagusia inguruotan tentsioa sortzea zen, eta batez ere, etsaiak euren eraso etengabe eta suntsigarrien bitartez adoregabetzea.



Atzieta 39ko surrealdean sartutako jaurtigaien irudia, eta dagokien xehetasuna.

Borrokaldiak amaitu zirenean, eraiketa horietako gehie-nak eraitsiak izan ziren, haien iraganeko existentziaren aztarnarik oro desagerraraziz. Dena den, obraren parte batek zutik iraungo zuen, murruek edo babes-pa-ramentuek gehienbat, eta gure egunotaraino heldu ahal izan dira, baina nahiko aldatuta eta garai bateko testuingurutik erabat aterata. Hori dela eta, gatazka haren lekukotasun osoa ezabatuta geratu zen, Atzieta 39an irekitako etxeko surrealdean oroitzapen berezi bat geratu bazaigu ere, bertan sartuta bi kanoi-jaurtigai ikus ditzakegu eta, biak lehertu gabeak. Ziurrenera bi jaurtigai hauek, Santiagomendin egokitutako bateria-ren batetik jaurtiko zituzten, eta 75 mm-ko Whitworth kanoi-motarenak ziren.



Fotografía: Jesús Mari Gómez "Txuso".

# EL CASERIO BIDAURRETA

## EMPLAZAMIENTO

El caserío Bidaurreta, en las estribaciones del monte Oriamendi, en Antziola auzoa, es uno de los caseríos más antiguos de Hernani.

Cuando sus primeros propietarios decidieron construir su vivienda en este lugar ya sabían lo que hacían y, también, que su elección era una de las mejores posibles, puesto que entonces éste fue un punto de gran valor estratégico:

- Hasta la construcción del nuevo Camino Real en el siglo XVIII, por las inmediaciones del monte Oriamendi pasaba la principal vía de comunicación de Gipuzkoa, siendo ésta la ruta terrestre que se utilizaba para ir a Donostia.
- La cumbre del monte dominaba todo el valle del Urola y, además, desde ella también se puede divisar el cercano valle del Oria. Por ello, Oriamendi jugó un papel de primer orden en la defensa de Donostia por su flanco sur o la de Hernani en su flanco norte durante las Guerras Carlistas del siglo XIX. Merced a ello, los carlistas denominaron a su himno "Marcha de Oriamendi"<sup>1</sup>.
- El 3 de junio de 1549 se acordó la construcción de la ermita de San Juan Bautista y San Sebastián de Ori-

mendi, actualmente desaparecida, dándose la circunstancia que se podía acceder a ella por un vial que iba desde el caserío Bidaurreta hasta la ermita de San Martín de Sagasti<sup>2</sup>.

## DENOMINACIÓN DEL INMUEBLE

Bidaurreta significa en euskera delante del camino, designación que recibieron muchos de los caseríos de nueva construcción de la Edad Media y Edad Moderna, que se cimentaron en las inmediaciones de los viales de comunicación.

Así, el nombre elegido por sus primeros dueños respondió al uso y costumbre de aquella época; en nuestro caso, su denominación estaba más justificada ya que la casería se ubicaba, como decíamos, al pie de la principal vía de comunicación bajomedieval de Gipuzkoa.

## ANTIGÜEDAD

El caserío Bidaurreta de Hernani es uno de los más vetustos de Gipuzkoa. Su antigüedad se remonta, cuando menos, a la segunda mitad del siglo XV, tal y como queda acreditado en el testamento otorgado por Gracia de Bidaurreta el 24 de diciembre de 1529, primer testimonio documental localizado del caserío.

<sup>1</sup> [http://es.wikipedia.org/wiki/Monte\\_Oriamendi](http://es.wikipedia.org/wiki/Monte_Oriamendi).

<sup>2</sup> AGUIRRE SORONDO, Antxon: "Ermitas de Hernani". Cuadernos de Sección Antropología - Etnografía nº 11. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1994, pp. 55 / 58.

~~epo qmara vam no tampe nq domine  
y nro de y se ve valer dignal one p. q. y v frondes  
de vna vefeta qmida de a v s i n m d l veynto  
q m a t g r a s de m e g de g r e n b r e v i o d e n a g m p de  
b e c u r t u m q e g u m l @ q m u 1 8 p veynto m e b e~~

A.H.P.G.: 3/910, fol. 45v°.

Por los términos en los que la testadora redactó sus últimas voluntades, el caserío era de su única y exclusiva propiedad; sin duda alguna heredado de sus padres:

- La voluntad de la testadora era que el inmueble y sus pertenecidos los legasen sus descendientes directos y en caso de fallecimiento de éstos, su hermano Domingo de Bidaurreta, con el único fin de que quedase en el seno de la rama principal de su familia.

Concretamente, nombraba heredera universal a su hija Mari Miguel, obligándole a que diese a su hermana Mari Domínguez 60 ducados de oro en concepto de gratificación por las legítimas que le correspondían. En el caso de fallecimiento de la primera sin descendencia, abintestato o edad de no poder testar, era su voluntad que el caserío pasase a su otra hija. Finalmente, si en esta segunda legataria se daban las circunstancias descritas para la primera, nombraba por su beneficiario a su hermano Domingo de Bidaurreta<sup>3</sup>.

Además, no contemplaba que su cónyuge pudiera hacerse con su propiedad bajo ninguno de los conceptos.

- Gracia de Bidaurreta ordenó a su heredera universal que pagase a su tío Domingo de Bidaurreta, además de los 25 ducados de oro que le debía por su legítima, otros 35 más de la misma moneda.
  - En aquél tiempo lo más habitual solía ser que una casa de estas características fuera construida por un matrimonio acaudalado para legarla a sus herederos directos.

**Ane:** Nik, berriz, argi daukat ez dudala honekin jarraituko. Gehiago ikusten dut hobby moduan. Orain Zuzenbidea ikastea da nire asmoa. Baino 'Ingo al deu' taldearekin ere jarraitu nahi dut. Egia esan, talde honekin hasteak ez du zerikusirik izan txapelketarekin. Lagun batek jakin zuen talde horrek abeslaria behar zuela, eta probak egiten ari zirela. Beraz, nirekin gogoratu zela-eta, abisua pasa zidan, eta proba egitea erabaki nuen. Urtarrilean hasi nintzen taldean, eta martxoan eman genuen lehenengo kontzertua.

**«GEHIAGO IKUSTEN DUT HOBBY MODUAN.  
ORAIN ZUZENBIDEA IKASTEA DA NIRE ASMOA»**

**Berbera taldeetan arituta ondo pasatuko duzue ba, zuek esan bezala, festarik festa...**

**Ane:** Lana da, baina gustatu egiten zait, beraz, pozik! Lagunek esaten didate zorte handia dudala.

**Iosune:** Egia da, bai. Denek esaten digute zorte handia dugula nahi duguna egiten ari garelako, baina, aizu! Lana da, eta erromeria gogorra ere bada! Beste batzuk 20 urte beteta ere, ez dute sekula lanik egin!

**Ane:** Horixe esaten dit niri amak...

**Iosune:** Orain gazteak gara eta ikusiko dugu noiz arte aritu, iristen baita puntu bat...

**Ane:** Bai ba! 50 urterekin ezin da horrela ibili!

**Iosune:** Beno, hor dago Egan, adibidez!

**Asko mugitzen zarete 'Ingo al deu' eta 'Ai ene!' erromeria taldeekin?**

**Iosune:** Kontzertu gehienak udan ematen ditugu, herri txikietan, 30 inguru. Neguan ere izaten ditugu kontzertu batzuk, gaztetxeetan eta... Gehienbat Gipuzkoan aritzen gara, baina Bizkaian eta Nafarroan ere bai. Hernanin ere jo genuen, San Joanetan. Eta Donostian, Konstituzio Plazan ere aritu gara, Aste Nagusian. Lehengo urtean ere jo genuen, eta aurten ere deitu digute, beraz, primeran! Horrela lortzen ditugu kontzertuak: bat eman ondoren batzen bat gerturatzen da gurekin harremanetan jarri nahi duela esanez. Konstituzio Plazan oso ondo pasa genuen. Jende asko zegoen, atzerritar pila bat, eta giroa handia zen. Baino herri txikietan jotzen dugu gehienetan, eta batzuetan, 4 katuretzako... Baino gustura!

**Ane:** Guk espero dugu urtea bukaterako 60 bat kontzertu ematea. Normalean herri txikietan ibiltzen gara, gehienbat Nafarroan. Baino Konstituzio Plazan jo dugu guk ere aurtengo Aste Nagusian, eta jende asko zegoen orduan. Beste behin, berriz, Bartzelonan izan ginen, lehengo martxoan.



"Ai ene!" taldea, Iosune gitarra jotzen.

### Zein izan da kontzerturik gogoangularia?

**Ane:** Bartzelonakoa bera. Nire hirugarren kontzertua izan zen hura, eta oso urduri nengoan. Taldekideak ez nituen oso ondo ezagutzen, denak aterpetxe berean elkarrekin geunden, ni lotsatuta...

**«NIRE HIRUGARREN KONTZERTUA BARTZELONAN  
IZAN ZEN, ETA OSO URDURI NENGOEN:  
TALDEKIDEKIN ORAINDIK KONFIANTZA  
HANDIRIK EZ, NI LOTSATUTA....»**

**Iosune:** Niretzako Hernanin eman nuena, 'Egusentiaren kantak' emanaldiarekin. Talde profesional batekin jotzea eta kontzertu hori lehenengo aldiz zure herrian ematea... Hori urduritasuna pasa nuena!



Ane kantuan "Ingo al deu" taldearekin.

**«NIRETZAKO KONTZERTU BEREZIENA IZAN  
ZEN "EGUNSENTIAREN KANTAK"  
EMANALDIAREKIN HERNANIN EMANDAKOA.  
HORRELAKO TALDE PROFESIONAL BATEKIN  
ETA ZURE HERRIAN JOTZEA....»**

### Dudarik ez dago gozatu egiten duzuela. Beraz, zein da gustatzen zaizuen lanean aritzearen alde «gogorra»?

**Ane:** Goitik ikusita dena desberdina da. Jendea ikusten duzu dantzan, moxkortuta... Inbidia pixka bat ere ematen digute! Guk ez dugu udan denbora askorik izan parrandarako! Batuetan lau kontzertu jarraian izaten ditugu, edo bestela, kontzertu bat eman, biharamunean

jai egin, hurrengoan berriro ere beste 4, egun bateko deskantsua eta beste bi... Eta ondorioz, goizak lo! Eske-rak ia bi asteko oporrak hartu ditugun abuztu bukaeran! Baina dibertigarria ere bada, adibidez, aulk-i-jokoa egiten dugunean, edo gure bateria-joleak kamiseta kentzen duenean... Nesnak erotu egiten dira!

**Iosune:** Gurean Eider, pandero-jolea da oso polita, eta lehenengo lerroan mutil piloa egoten da! Eta aulk-i-jokoarenarekin, ados! Orduan esertzeko aukera izaten dut, eta beste instrumentu batzuk probatzeko apro-betxatzen dut... Hori da txarrena, horrenbeste emanaldi jarraian edukita kontrakturekin nabilela, eta astero joan behar izaten dudala masajistarenera. 'Egusentiaren kantak' proiektuarekin aldea nabarmena da. Hor eserita jotzen dut, lasai, profesionallez inguratuta! Lo faltarenak, berriz, ez du erremediorik! Jai dugunean, askotan ezin izaten dugu lorik egin, ordutegia aldatu zaigula-eta. Hori bai, onena, Euskal Herri osoa ezagutzen ari garela! *Bas-que Tour 2013!*

**«HORRENBESTE EMANALDI JARRAIAN  
EDUKITA KONTRAKTUREKIN NABIL,  
ETA ASTERO JOAN BEHAR IZATEN  
DUT MASAJISTARENERA»**

### Nola eta noiz hasi zineten musikarekin?

**Iosune:** Hernaniko Musika Eskolan hasi nintzen 4 urte-rekin. Eskolako irakasleak esan zion amari azkar harrapa-tzen nituela kantuak, eta Musika Eskolara bidali ninduen. Negarra besterik ez nuen egiten! Kuriosoa da hain gaizki pasa ondoren, mundu honetan lan egin nahi izatea! Gero ondo pasatzen nuen, Susirekin gitarra jotzen... Orain, berriz, Donostiako Kontserbatorioan erdi-maila egiten ari naiz. 6 urte dira, eta batxilerra egin bitartean hara eta hona ibili ondoren, konturatu nintzen gehiegiz zela nota ona lortu nahi baduzu. Horregatik, orain buru-belarri nabil kontserbatorioan gitarrarekin. Bost eta seigarren maila falta zaizkit bukatzeko, eta, agian, goi-mailakorako (Musikenerako) sarrera-proba egingo dut... Ikusiko dut! Ez da erraza, gitarraz gain armonia eta analisia bezalako ikasgaiekin!

**«MUSIKA ESKOLAN HASITAKOAN NEGARRA  
BESTERIK EZ NUEN EGITEN! KURIOSOA DA HAIN  
GAIZKI PASA ONDOREN, MUNDU HONETAN  
LAN EGIN NAHI IZATEA!»**

**Ane:** Ni ere Musika Eskolan hasi nintzen, baina solfeoa (lengoaia musikala) eta abesbatza egiten nituen. Jo nahi nuen soinu-tresna aukeraterako orduan, ez zegoen to-kirik gitarran. Horregatik, Kantuzen hasi nintzen gitarra jotzen.

### Zaila ikusten duzue musikaz bizitza?

**Ane:** Segun. Berbena-taldeak beti izaten dira. Bereziki udan. Horrela lortzen dugu dirua gure gauzeturako, ins-trumentuak erosteko.... Orain teklatu bat erosi dut, eta ari naiz nire kabuz moldatzen!


**Iosune:** Orain berbena-talde piloa dago, bai. Kalitatea beste gauza bat da, baina tira. Betiko batzuek ere jarraitzen dute: Laiotz, Trakets... Nahiz eta niri trikitixarik gabeko erromeriak ez gustatu! Gero, "3gabe2" eta antzekoak daude, beste estilo batekoak, ez guztiz erromeria egiten dutenak... Horrekin, gehienez ere udan biziko zara, eta urte osoan zehar espagetiak janda! Berbenak dira, bizi-rauteko. Luthier gitarrak garesti samarrak dira... Denera 7 gitarra ditut, eta kuriosoena da denak behar ditudala eta erabiltzen ditudala! Gainera, goi-mailako ikasketak egitera animatuz gero, gitarra jakin bat erosi behar da, eta oso garestiak dira: bataz beste, 4.000-5.000 euro inguruoak...

**Kantuak sortzen ere ibili zarete biak. Disko bat ere grabatu duzu zuk, Iosune. Alde horretatik jarraitzeko asmorik baduzue?**

**Iosune:** Txapelketa irabazteak motibazioa sortu zidan. Hortik etorri zen 'Zeru horiek' diskoa grabatzea, eta orain jarraitzen dut kantak sortzen. Agian grabatuko dut beste disko bat, ari naiz zerbaitetan. Esaten da Ez Dok Amairu sortu zutenak bukatzean mundua bukatzen dela, ez dela kantautorerik geratzen, eta badago! Urdangarin, Markez... Kantak sortzen jarraitzeko asmoa dut.

**Ane:** Orain utzia dut kantuak sortzearena, ez baitut denborarik. Gainera, gustura nago taldearekin. Duela gutxi hasi naiz eta jarraitzeko asmoa dut. Argi dago berbena-giroa gustatu arren ez dela nire estiloa; nahiago dut beste zerbait kantatu. Baino gitarra orain utzita daukat pixka bat. Ikasketetan egunean ibiltzeko asmoa dut!

**«ARGI DAGO BERBENA-GIROA GUSTATU ARREN,  
EZ DELA NIRE ESTILOA; NAHIAGO DUT BESTE  
ZERBAIT KANTATU»**



Zeru horiek, Iosunek atera duen diskoa

**Etorkizunera begira, zein dira zuen asmoak?**

**Ane:** Nik oraingoz nahikoa dut taldearekin jarraitzearekin eta Zuzenbidea ikastearekin. Gero gerokoak!

**Iosune:** Batetik, ikasketekin jarraitzea eta nire ikasleei klaspeak ematen jarraitzea. Nire helburua da gitarra klasikoa, akustikoa eta elektrikoa menderatzea. Taldean elektrikoa jotzen dut gehienbat, eta nik nahiago ditut beste biak. Bestalde, 'Sortuko dira besteak', 'Egunsentiaren kantak' eta Joxan Goikoetxearekin jotzen jarraitza espero dut. Horrelako profesionalekin aritza zoragarria da; orain dela 2 urte arte erreferente gisa nituenekin jotza... Oso pozik nago! Eta asko ikasten dut! Berbenak gazte denborako dira eta, ea muturra sartzen dugun pixka bat horrelakoetan!



Iosune Joxan Goikoetxea, Magali Zubillaga eta Pier Paul Bertzaitz-ekin: «Orain dela 2 urte arte erreferente gisa nituen profesionalekin jotza zoragarria da».

# VELÁZQUEZ, HERNANI Y EL MITO DE ACTEÓN

José Angel Yanci Urtasun

La obsesión por el retrato que Holbein hizo del joven Wyatt y la noticia de su traslado temporal a Madrid me llevó hasta esa ciudad el pasado invierno. Vi la pintura, pero como tantas veces ocurre, el interés que tenía por ella se desvaneció en ese momento. Tal vez era aquella reproducción, arrancada años atrás de una revista de arte, la que aportaba un halo que no encontré en el original. Pero no fue éste un lamento prolongado, ya que ese mismo día, otra obra atrapaba mi atención. Se trataba también de un retrato, pero en éste caso pintado por Velázquez. Cedido por el Metropolitan, era la obra invitada en el Prado. Desconocíamos la identidad del retratado, pero era innegable su parecido con uno de los personajes que nos miran desde un extremo de *La Rendición de Breda*, circunstancia que acentuaba su carácter enigmático. Todo esto, me llevó hasta otras obras del autor, y contemplándolas me sorprendió el cierre del museo. Bajé las escaleras que me sumergían en el invierno de Madrid pensando que, perdidos en el desconcierto de la creación actual, olvidamos que la más rabiosa modernidad puede encontrarse en la mirada de un enano de Velázquez.

El trazado actual del tren no difiere demasiado de aquél camino real que en la primavera de 1660 hubo de recorrer Velázquez desde Madrid hasta alcanzar la desembocadura del Bidasoa. Desgraciadamente no fue el ejercicio de la pintura lo que le trajo hasta aquí, sino el importante cargo que ostentaba en la administración del reino. Como Aposentador de Palacio, que así se denominaba el puesto, tuvo que volcar toda su experiencia en la organización del llamado «Viaje a los Pirineos».

La empresa no era fácil. Consistía en trasladar gran parte de la corte hasta la Isla de los Faisanes, donde tendrían lugar los hechos, de gran relevancia histórica, de la celebración de la paz con Francia y de la entrega de María

Teresa, hija de Felipe IV, para su matrimonio con Luis XIV. Acompañarían al rey y a su hija nobles y notables, médicos y confesores,..., formando entre todos un séquito de casi 300 personas. Además, una guardia de 2.000 soldados, quinientos de ellos a caballo, centenares de criados, más de cien carros y carrozillas para el transporte de mercancías y personas, cuatro literas, miles de mulas para el transporte de carga...<sup>1</sup> Todo esto exigía una minuciosa planificación. El alojamiento era primordial, adecuado a las personas según su dignidad; había que acondicionarlo cuando fuera necesario, procurar la manutención de todos, cubrir las necesidades que surgieran y supervisar los festejos que las villas ofreciesen.

A través de un texto que nos proporciona Luis Murugarren, y aún tratándose de un acontecimiento posterior como fue la llegada del Conde de Artois en 1782, podemos conocer con detalle como pudo prepararse todo esto en Hernani:

*“Se pidió urgentemente pescado fresco a Zarauz y Guetaria y comestibles a Astigarraga, Andoain, Urnieta y Tolosa. En el Palacio de Doña Rosa de Aragorri se instalaron nueve fogones para condimentar todas aquellas viandas encargadas. Se prepararon otras casas para la comitiva, se estuvo limpiando durante tres días la Plaza mayor, se adornó El Ayuntamiento con alhajas y muebles, prestados por los vecinos de mayor rumbo, y se alquiló una baquilla con su buey para emocionar al Serenísimo Conde con el espectáculo de una corrida”<sup>2</sup>.*

Se conserva también un curioso documento que enumera los trabajos realizados en cada punto del recorrido por el carpintero que acompañaba a Velázquez. Martín Gajero, ese era su nombre, anota en su libreta:

*“Hernani: se pintaron tres casas con rompimientos y puertas y escaleras y atajos de retrete y encerados”<sup>3</sup>.*

<sup>1</sup> Jose Luis Colomer. Arte y Diplomacia de la Monarquía Hispánica en el siglo XVII. Paz política, rivalidad suntuaria. Francia y España en la isla de los Faisanes. Madrid, Villaverde ediciones 2003, pp. 66.

<sup>2</sup> S. Gastaminza. Apuntes para una historia de la N.L. e Invicta villa de Hernani. San Sebastián 1913, p. 51 ss., y Archivo Municipal de Hernani, E-1-1/3.

<sup>3</sup> Gregorio Cruzada Villamil. Anales de la vida y de las obras de Diego de Silva Velázquez. Madrid, Librería de Miguel Guijarro 1885, p. 267.

Recordamos que atajar era una forma de distribuir las estancias, los encerados, tabiques de lienzo, y por último, retrete, que designaba el espacio reservado al retiro del Rey. Se gastaron 70 reales, no superándose esta cantidad en ningún otro lugar.

Ultima los preliminares cuando se le concede una litera de camino, que hará más cómodo su viaje. Sus ayudantes habrán de conformarse con mulas de silla. El octavo día de abril ya están en camino, adelantándose al rey que no saldrá hasta el día 15. Prepararán su llegada a Burgos, pero en esta ciudad se le ordena que vaya de nuevo por delante hasta Hondarribia. Serán por tanto ellos, los primeros en dejar atrás la meseta y con ella su característico cromatismo; los ocres y cárdenos dominantes mutarán poco a poco en una sobrecogedora variedad de verdes. Aún sabiendo que quién viajaba era más el funcionario que el artista, resulta inevitable preguntarse por lo que sintió el genio ante el nuevo paisaje que le envolvía y que Leonardo Del Castillo, en su crónica «Viaje del Rey N.S.D. Phelipe IV a la frontera de Francia», describe de esta manera:

*...así con la fragolidad de su terreno mojado de continuas lluvias, como con los cerros empinados, y doblada, é inaccesible situación de sus montañas; en cuya misma aspereza es dos veces singular, y vistosa la amenidad, que se descubre; porque vestido el suelo de intrincada espesura, y regado de cristalinos despeños, de claros y multiplicados arroyos, figura un País hermoso, y deleitable*<sup>4</sup>.

Pero no será fácil acceder a tanta belleza, dado que en este último tramo del viaje surgirán las mayores dificultades. Una abrupta orografía, la práctica inexistencia de vías aceptables y, en muchas ocasiones, la lluvia y el barro configuraran un infierno parecido a aquel que narrara Werner Herzog en su película *Fitzcarraldo*. Infierno también para aquellos hernaniarras que en la jornada del 5 de mayo, como ya ocurriera en el recibimiento a Felipe III en 1615, se encontraban en el límite de Gipuzkoa entre los:

*...1400 hombres, entre picas, arcabuzeros, y mosqueteros; los cuales (aunque ofendidos de la copiosa lluvia de aquella montaña, y de la molestia con que les avian impedido, ó retardado los lodos la marcha) luzidos de vestidos, y de armas, y diestros en mandarlos, y en esquadronarse, formaban un vistoso alarde...*<sup>5</sup>.

A pesar de todo y casi una semana más tarde, el 11 de mayo, la caravana llegaba a las puertas de Hernani. Del Castillo lo cuenta así:

*“El martes que se contó 11 de mayo, salieron sus Majestades de Tolosa á las ocho, y fueron á comer á la Villa de Hernani... - llegó a Hernani antes de medio día... - Consta la Villa de Hernani de 250 vecinos, está medianamente fortificada, y es de mucho nombre, por la famosa defensa que hizo á Franceses, quando vinieron á expugnarla, teniendo sitiada á Fuenterrabía, para dexar cortada á esta Ciudad, y á la de San Sebastian, como lo consiguieran, si tomaran á Hernani, que por sú buena situacion, es como garganta comun de estas dos plazas”<sup>6</sup>.*

No es extraño que el relato ensalte el valor guerrero de los hernaniarras. Sabemos también gracias a Luis Murugarren de la existencia de textos similares depositados en el Archivo Municipal. Todos ellos describen la participación de la villa en el conflicto. Destaca entre ellos el referido a la liberación de Hondarribia en 1638<sup>7</sup>; gesta que se celebró durante mucho tiempo. Según Jonathan Brown sería en este contexto de euforia cuando el Conde Duque de Olivares se hiciera retratar a caballo por Velázquez<sup>8</sup>.

En apenas tres horas que duró la estancia en Hernani no hubo lugar para grandes solemnidades, quedando estas relegadas para la vuelta. Quienes hubieron de esforzarse ese día en distraer y elevar el ánimo a los viajeros fueron enanos y bufones, ya que la jornada quedó ensombrecida por un accidente ocurrido esa misma mañana en el que un miembro del séquito pereció ahogado al caer al río Oria tras perder el control de su caballo. Sigue Del Castillo:

*“De aquí salieron sus Majestades antes de las tres, y cerca de un sitio alto, que à poco trecho de Hernani, señorea, y descubre el Mar, les aguardava con lucimiento de camaradas, y criados el Baron Don Carlos de Vvateville... ”<sup>9</sup>.*

Entre esos “camaradas y criados” que acompañaban a las autoridades de San Sebastián para el recibimiento en Oriamendi, lugar al que se refiere, se encontrará con toda probabilidad el aposentador. Llevaba días en Hondarribia inmerso en los preparativos del encuentro, pero se le había ordenado:

*“que estuviese en la ciudad de san Sebastián para quando su Magestad llegase”<sup>10</sup>.*

Pronto retomó dichos preparativos. Había que construir el escenario para aquella gran representación donde las artes tratarían de restituir la luminosidad que iba perdiendo el llamado rey planeta; ocultar bajo el delirio es-

<sup>4</sup> Leonardo del Castillo. *Viage del Rey n.s.d. Phelipe IV el grande a la frontera de Francia*. Madrid, Imprenta real 1667.

<sup>5</sup> Ibid.

<sup>6</sup> Ibid.

<sup>7</sup> Luis Murugarren. *Hernani, su historia e instituciones*. San Sebastián, publicación de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián 1970, pp.28-29 y Archivo Municipal de Hernani, E-5-II-1/21.

<sup>8</sup> Jonathan Brown. *Velázquez, pintor y cortesano*. Madrid, Alianza Editorial 1986, pp.125-127.

<sup>9</sup> Leonardo del Castillo. *Viage del Rey n.s.d. Phelipe IV el grande a la frontera de Francia*. Madrid, Imprenta real 1667.

<sup>10</sup> Antonio Palomino de Castro. *El Museo Pictórico y escala óptica*. Madrid, Luca Antonio de Bezmar 1715-1724, p.522.



**Jorge Oteiza. Homenaje a Velazquez, 1958. Artium Vitoria-Gasteiz, Catálogo Arte y Artistas Vascos en los años 60 (KM Kulturrea).**

tético tan propio de la época lo que no dejaba de ser una derrota. Los tapices eran parte importante en la decoración del pabellón, pero sabemos que, a pesar de su gran calidad, fueron rechazados aquellos cuyo tema pudiera ofender a los franceses. Tal era el caso de los que ilustraban la batalla de Pavía<sup>11</sup> en la que Juan de Urbina fue el gran protagonista. Por aquellos méritos el capitán hernaniarra ostentó la Cruz de Santiago, orden en la que con tanto esfuerzo Velázquez acababa de ingresar. Probablemente éste visitara su tumba en la iglesia de Hernani, admirando de paso un retablo, que como sus *Meninas*, se había terminado apenas cuatro años atrás.

El martes 8 de junio, cuando por fin han callado las fanfarrias en el Bidasoa, emprende el viaje de regreso. A las 6 de la tarde entra en Hernani donde pasará la noche. En esa habitación, que en nada se asemeja a los suntuosos palacios donde se había alojado en sus viajes a Italia, despojado ya de los lujosos ropajes y joyas de los últimos días y saciado su deseo de estar más cerca del rey que del carpintero, Velázquez se reencuentra consigo mismo, tal vez con el pintor que siempre fue, y con su destino. La muerte ya le espera en Madrid, empeñada en que ese verano sea su última estación. Ajeno a ello escribirá a su regreso, a otro pintor amigo suyo la que será su última carta:

*"Yo Sr. llegué a esta corte sábado a el amanecer 26 de junio, cansado de caminar de noche y trabajar de día pero con salud y gracias a Dios hallé mi casa con ella".*

La modernidad atemporal de su obra, de la que ya hablábamos en un principio, también forma parte de nuestra propia modernidad. Al imaginar aquella noche que pasara el pintor en Hernani, dibujaba una imagen casi ascética, como si de otra noche oscura se tratase.

Trae esto a mi memoria la reflexión que sobre la condición humana vertiera Jorge Oteiza en "Acteón", el proyecto cinematográfico donde traslada al mito desde la antigüedad al mundo contemporáneo, igual que hizo el pintor en *Las Hilanderas con Aracne*, otro de los mitos que recoge Ovidio en su "Metamorfosis". En este trabajo Oteiza, une indisolublemente las últimas obras de Velázquez al ser vasco: "*relaciono las Lanzas con las Meninas, y me dieron frontón vasco*" dice<sup>12</sup>.

Acerquémonos pues a ese frontón, a esa "pintura cromlech" como definía a Velázquez. No solo comprendemos porqué aquel viajero que un día pasó por Hernani no nos es tan extraño, sino que descubriremos que ese espacio aparentemente vacío está lleno, rebosante de nuestra propia alma vasca.



**Jorge Oteiza. Homenaje a las Meninas, 1958. Catálogo del Museu Fundación Juan March, Palma de Mallorca.**

<sup>11</sup> Jose Luis Colomer. Arte y Diplomacia de la Monarquía Hispánica en el siglo XVII. Paz política, rivalidad suntuaria. Francia y España en la isla de los Faisanes. Madrid, Villaverde ediciones 2003, pp. 69.

<sup>12</sup> Javier Ortiz Echagüe. La cámara metafísica: fotografía y cine al final del ciclo experimental de Jorge Oteiza. Madrid, Universidad Carlos III.

# UZTAPIDE ETA HERNANI: “ERNANIKO PLAZAK IZKETAN BALEKI”

Jon Odriozola

Bertsoak eta Hernanik duten erlazioa ezaguna da. Bertsolariek eta bertsozaleek duten lotura ez da berria. Ekitaldi zein jai askotan bertsoaren presentzia ohikoa da. Bertsolari habia da Hernani. Baita plaza ona bertsoetarako ere. Hamaika bertsolari pasa dira herritik baina bada bat uzta berezia utzi duena: Manuel Olaizola Urbieta “Uztapide”<sup>1</sup> (1909-1983).



<sup>1</sup> Argazkia: UZTAPIDE. Lengo egunak gogoan. Auspoa Liburutegia, 1975.



**Uztapide eta Basarri, gaztetan (argazkia: Aldai, Nikolas eta Esnal, Pello: Uztapide bat-batean. Antologia. Auspoa Liburutegia 313. Donostia, 2009).**

Iñaki Zubeldia hernaniarrak, mutil koskorra zela, 10 edo 11 urte izango zituen, oroitzapen berezi bat du. "Luisturrenean, hau da, udaletxearen ezkerraldean zegoen garai bateko lehen etxean, Uztapide –Manuel Olaizola– eta Basarri –Iñaki Eizmendi– bertsoan ikusi nituen. Balkoi beretik aritu ziren. Beste askok bezala, elizako eskaileretan entzun nuen bertso saioa".

Egun bezala, lehen, ohikoa zen San Joan jaietan bertsolariak izatea. Migel Arozamena –Hernanin bizi zen lesek bertsolaria– arduratzen zen 'Tilos zugatz-bidean' kantatuko zuten bertsolariekin harremanetan jartzeaz. "Uztapide, bertso saioetara, kotxez eramatzen zuten baina trena ere maiz erabiltzen zuen", dio Zubeldiak. Hirurogeita hamarreko hamarkadako San Joan jaietan bertsoan aritzen ziren bertsolariak, Elur Txori elkartera iristean, hamaitakoa izaten zuten. Handik, Ezkiaga pasealeku kioskora joaten ziren bertsoan egitera. Baskal ostean, Txantxilla futbol zelaian antolatu izan ziren herri-kirol ikuskizuneko hutsarteetan ere bertsoan aritzen ziren.

<sup>2</sup> Berriz plazara I.

Uztapide urte askotan aritu zen Hernanin kantari. Bere lehen urratsak idatzita utzi zituen:

**"Lendabiziko urtean gerra asi baño len izan giñan: Txapel da Zepai; irugarrena ez dakit zein izango zan: Mandiolatza –Juan Joxe Urangaredo Saiburu, bitan bat izango zan; da bestea ni. Lau bertsolari giñala badakit. (...). Aurreko San Sebastian bezperan Donostin izan giñan txapelketan, eta jendeak orduan ezagutuak, ni beintzat; eta andik urrengo San Juanetara bost illabete daude danak ere, eta orduantxe gu Ernanin. Ori lendabiziko urtea zan.**

**Gerra ondorenean ere urtero joaten giñan. Zepairekin eta Baserreirekin, Pablo zapatero –Paulo Zubiarain bertsolari hernaniarra– ta Mitxelenarekin, eta gero atzenean Lasarte eta Arozamenarekin eta Azpillagarekin, oiek dana kin kantatu izan det Ernaniko plazan. Makiña bat moduko bertsoak kantatuko giñuzen. Ernaniko plazak izketan baleki...**

**Beti plaza batean ez genduan kantatu ere egi ten; baña lenbizi, luzaro, ganadu-peria egiten zan leku artan. (...). Gero, berriz, Tilosetako Plazaan urte askoa. An kantatzen genduala, ganaduen premioak ere izaten ziran. (...). Gero Txantxillako kanpoan ere bai. An egiten genduanean, beste pestaren batzuek zeudelako izango zan. (...) Ernanin, bertsoak entzuteko zaletasun aundi a dute bertako jendeak"**<sup>2</sup>.

**OHOLTZAN.** Ez daki nola hartu zuen lur gai-jartzaile lanetan Iñaki Zubeldiak, baina urte mordo bat eman zituen saltsan. Halere, eskarmentuak ez du jende aurrean hitz egiteko urduritasuna uxatzen. San Joan jai batzuetan Ezkiagako kioskoan bertso saioa hastear zela, Zubeldia mikrofonoaren aurrean jarri zen: "Orri batean ohar batzuk nituen idatzita. Urduritasunaren urduritasunez, orria 'dantzan', dardarka, hasi zitzaidan". Zubeldiak jarriko zien lanari bertsoz erantzuteko asmoz, bere atzean, Uztapide eta Lasarte bertsolariak prest zeuden. Eskuartean zuen orriaren dardaraz jabeturik, Uztapidek zera esan zion Lasa: "Hau horrela dagoenerako guk nola egon beharko genuke?" Primeran entzun zion hernaniarrak esamesa bertsolari: "Sano-sano esan zuen. Zenbat eta urdurigoa, orduan eta zirikatzaileagoa zen", gogoratzen du.

Jende dezente biltzen zela gogoratzen du Zubeldiak Ezkiaga pasealekuaren ospatzen zen herriko jaietako bertso saiora: "Kiosko aurrea bertsozalez betetzen zen. San Joan jaietan egiten zen saioan, Lazkano eta Lizaso bertsolariak ere maiz izan ziren. Lopategi eta Azpillaga ere ez ziren urrutti izaten. Hauek, bertsolari zaharren aldean, gai politikoagoak erabiltzen zituzten bere bertsoetan; frankis-

moa, askatasuna... Uztapide eta bere belaunaldikoek, berriz, herrietako gorabeherak aipatzen zituzten batik bat”.

**EZTA DURO BAT ERE.** Herrian, Uztapide parte hartzekoazan bertso saio bat bertan behera geratu zeneko pasadizo bat badu Zubeldiak bertsolariarekin bizi izana. “Bertsolariei, diru-kopuru bat ematen zitzaien bertso saioetan aritu ondoren. Jexux Insausti lagunak ‘hogei durokotan’, nondik edo handik lorturiko kopuru bildu, eta biok, Uztapiderengana joan ginen. Ezagutzen nuen non bizi zen, eta Jexuxen motoan abiatu ginen Oiartzunera. Etxe ondoko aldapa batean topatu genuen beste anaia batekin ganadu-janean. Agurtu eta etxera gonbidatu gintuen. Sukaldean puru txiki batzuk eskaini, eta botila ardo batzen bueltan ordubete baino gehiago berriketan aritu ginen; bertsolaritzaz... Gogoan dut nola goraipatzen zuen Fernando Aire Xalbador. Urepelko artzaina asko maite zuen. Ipar Euskal Herrikoak bertso oso sakonak kantatzen zituela esan zidan”.

Halako batean zertara etorri ziren galdetu zien bertsolariak bi herniarrei. “Diru bat bildu dugu, eta nahiz eta ospatu beharreko bertso saioa bertan behera geratu, bertsolariok kobratzen duzuena ematera etorri gara”, esan zion Zubeldiak. “Ez dut sekula ahaztuko Uztapidek bota zidan begiratua! ‘Zuk badakizu nire berri, ezta?’, esan zidan. ‘Bai’, erantzun nion. ‘Jakingo duzu bertsolari bakarra naizela bertsolaritzatik bizi naizena, ezta? –gainontzeko bertsolariet lanbide bat zuten–. Nik lanik egiten ez badut ez dut kobratzen’, esan zidan”. Zubeldia ahalegindu zen diru hura bertsolariak har zezan baina ez zion onartu. “Halere, ‘nahi duzuenean deituidazue’ esan zigun Uztapidek bioi; azalduko zela berriro ere Hernanira bertsotara”.

**KAXIANO ZUBELDIA.** Uztapidek, harreman nahikoa zuzena zuen Zubeldia sendiarekin. “Egañaneko Kaxiano Zubeldia, hernaniar bertsolaria, eta nire aita –Joaquin Zubeldia– lehengusuak ziren. Kaxianok, gainera, bertso-tan txukun egiten zuen. Bertsozale amorratua zen”, dio Iñaki Zubeldiak.

Bazen ‘Fernando Andoain’ izenez ezagutzen zen Hernani inguruko bertsolari bat. Behin, Xoxokako festetan –Uztapide eta ‘Fernando Andoain’ arituak ziren bertsotan– Iñakiaren aita, Joaquin, bertso saioaren amaieran Fernando Andoainekin hitz egiten hasi zen. Halako batean, ‘zuk bertsotan oso ondo egiten duzu, e?’, esan zion Joaquin Zubeldiak Fernando Andoaini. Eta Fernandok erantzun zion: ‘Bertsotan txukun? Bai, berriz ere Uztapideren bazterean; bidea egiten baitu. Ez baitu mozten’.

Uztapide tartean den beste pasarte bitxi batez ere goratzentz da Iñaki Zubeldia. “Duela berrogei urtetik gora gertatua”, gaineratu du. Ereñozun gai-jartziale lanetan aritu eta bertso-saioa amaitu orduko herrirantz hurbildu zen kotxez –dos caballos batean– Uztapide eta Xalbadorrekin batera. “Kotxea Ipar Euskal Herrikoarena zen. Ateak zabaldurako Xalbadorrek zeramatzen galtzen gainezti urdin koloreko beste batzuk jantzi zituen. Kotxearen

koipearekin ez zikintzeke, antza. Autoari apur bat kostazitzaion martxan jartzea baina abiatu ginen eta herriratzean, Xalbadorrek, Uztapide eta biok trenaren geraleku –apeaderoa– utzi gintuen”.



**Uztapide eta Xalbador (argazkia: Aldai, Nikolas eta Esnal, Pello: Uztapide bat-batean. Antologia. Auspoa Liburutegia 313. Donostia, 2009).**

Uztapidek hartu behar zuen trena noiz etorriko zain zeudela –Errenerria hurbildu behar zuen gero Oiartzunera joateko–, bertsolaria Portu auzora begira jarri, eta zera esan zion Zubeldiari: “Hamaika egun gozo pasatako tokia horixel!. ‘Bai?’, esan nion harriduraz. ‘Bai, noski’, erantzun zidan. ‘Goierrri aldetik etortzen banintzan hortik pasa gabe ez nintzen etxeratzen.’ ‘Eta nora joaten zinen ba?’, esan nion nik. ‘Nora? Kaxiano Zubeldiaren etxera. Egañanera!’. ‘Kaxiano? Nire aitaren lehengusua zen eta!’, gaineratu nuen. Luze egon ginen hitz egiten. Adibidez, Kaxiano ospitalean egon zeneko bisitaldia”.

Kaxiano Zubeldia bolada batean Elgoibarko ‘Arrillagaren klinikan’ egon zen belauneko minez; behi batek ostikoz jo baitzuen. Egun batean, Uztapide eta Zepai bisitan joan zitzaiak Portukori. Hirurak gelan zeundela Kaxianoren semea, Joxe Joaquin, bertan sartu orduko, bere aitak –Kaxianok– bertso hau bota zion ohetik.

**Aspaldi ontan ementxe niok  
muitu ezinda geldirik,  
bei ero arek egiten al dik  
len bezalako boterik?  
Nik etzedukat etxe ontatik  
puska batean joaterik,  
etxeeko lanak egintzik ondo  
bestela ez daukak doterik.**

Zubeldiak Uztapide definitzeko orduan, “lehenik eta behin, gizon bete-betea”, zela dio. “Oso hurbila. Ez zion agurra inori ukatzen, pertsona gozo eta atsegina zen, nahiz eta begiratu seriokoa dela ematen duen gordetzen diren bere argazkietan. Tratuan, aparta. Uztapide pertsona atsegina zen, oso hiztuna. Gustagarria. Herritarra. Bertsolari oso ona”. Zubeldiak, Uztapideren liburu bilduma batean, –Uztapide lengo egunak gogoan–, 1975. urtean bertsolariak idatzi zion eskaintza bereziki gordetzen badu ere, –Iñaki Zubeldia lagun zarrari biotzez– arantza txiki bat du: berarekin argazki bat atera ez izana.



**Paulo Zubiarrain "Paulo Txikia" edo "Hernani Txikia" eta Uztapide. Argazkia: Pablo Zubiarain "Ernani txikia" - la Kantatuz bezala. Auspoa Liburutegia 190, 1985.**

#### 'HERNANI TXIKIA' ETA UZTAPIDE

Paulo Zubiarrain "Paulo Txikia" edo "Hernani Txikia" –ber-tsolari hernaniarra– eta Uztapide bertsotan maiz ari-tzeaz gain, elkarren berri primeran zekiten. Paulo Txiki bertsolari bizia zen, batipat, puntuak aritzeko orduan. 1981eko urtarrilaren 18an, Donostiako Balda pilotalekuaren Antonio Mari Eizmendi 'Loidisaletxe' eta Paulo Zubiaraini omenaldia egin zieten. Uztapidek bertso hau eskaini zion hernaniarrari:

Agur, Zubiarraindar  
 nire lagun zarra,  
 garai baten etziñan  
 bertsolari txarra.  
 Urrutira joaten zan  
 zure diadarra,  
 boza alaia eta  
 memori azkarra...  
 Gaur zorionten zaitut  
 Paulo hernaniarra.

Uztapide hil zenean hernaniarrak gogoan izan zuen ber-tsolari laguna. Hona, "la kantuz bezala" bere liburuan, Uztapide zenduari eskaini zizkion bederatzi bertsotatik lau:

(1)

Gazte denbora pasatu zuen  
 aizkorarekin basuan,  
 gizarajoak lan gogorrean  
 ain borondate osuan.  
 Bazun berezko argitasun bat  
 bere izate gozuan,  
 zer izango zan zenbaitek duen  
 eskola izan bazuan?

(2)

Naiz baserrian egin bizitza  
 noiznai jeixten zan kalera,  
 gu ere pozak bildutzen giñan  
 ura zebillen aldera.  
 Itzal aundiko errespetuan  
 egingo zuen galdera,  
 amaika aldiz ari entzuten  
 gozatu izandu gera.

(3)

Lenengo entzun genduenean:  
 "Il da Uztapide zarra",  
 Oiartzun erri ortara bildu  
 giñan jendetza edarra.  
 Azken agurra egin naiean  
 begietatik negarra,  
 itzaldu baitzan urte askoan  
 argi egin zun izarra.

(4)

Lagun maiteak emen utzita  
 aldegin zuen betiko,  
 Ni Jaungoikoa izan banintzan  
 ez nion joaten utziko.  
 Gurekin emen bearko zuen  
 eternidade guziko,  
 sinistu ere ezin det berriz  
 ez degula ikusiko.

## "EREÑOZUN ENTENDITZEN DUTE BERTSOA ZER DEN"

Begiko zuen Uztapidek Ereñozu. "Hara ere urte askotan joan nintzen", idatzi zuen. Ereñozun parte hartu zuen lehen bertso saioan, Saiburu edo Lujanbiorekin, Juan Joxe Uranga *Mandiola* azpeitiarrarekin, eta Zepairekin batera aritu zen. Goiz eta arratsalde egin zuten bertsotan. Bazkaltzen ari zirela, zerbaitek eman zion atentzioa Uztapideri: ahots ederra zuen neska bat bertsotan entzun zuen.

Harrez gero, Iñaki Eizmendi *Basarri*rekin aritu zen zenbait urtez Ereñozun. Ondoren Manuel Lasarterekin. "Basarri eta biok arratsaldean egingo genduan beste saioen bat, eta goizean baño errezagoko; kezka gutxiagorekin beti ere. Jendea agurtuko genduan plazan, hurrengo urterako arte esanda eta berriz ere ez aztutzeko gurekin, eta jetxiko giñan, soñu-jotzalleari txanda eskeiñiaz"<sup>3</sup>.

Uztapidek Ereñozuko toka eta bola demetan aritzeko auzokoenean zale-tasuna azpimarratu zituen. Eta auzoko "soziedadea" ere ezin ahantzi: "ara bildu oi giñan plazako saioa egiten genduanean. (...). An, tragoska bat egiñaz, bertso-saioren bat egingo genduan, da iñon baño atentzio obea edukiko zuten. Urumea errekan bada afizioa, eta entenditzen dute aiek bertsoa zer den"<sup>4</sup>. Uztapide eta Ereñozuren arteko harremanaren lekuko da 1975. urtean, Ur-Mia elkartea bertsolariari egin zion omenaldia. Egun haren lekuko, Uztapidek, gerora, hamasei bertsoz osaturiko bertso sorta bat egin zituen. Hona, lau:



1975eko maiatzaren 4an Ur-Mia Elkartea Uztapideri omenaldia egin zion.  
Argazkia: Jesús Mari Gómez "Txuso".

(1)

Omenaldi bat egin  
Ur-mia bazkunak,  
ta Ereñozura giñan  
goizetikan junak;  
Lore-illaren laua  
bezelako egunak  
gutxi izaten dira guk  
pasa ditugunak,  
ortarako laguntza  
egin bear Jaunak.

(2)

Elizatik ertenda  
gero berriz plazan,  
zortzi bertsolariren  
saiua izan zan;  
gutxiñez jardun ziran  
ordu bete pasan,  
entzulearen paltik  
egun artan etzan,  
pozik entzungo ziran  
geiago izan bazan.

(3)

Entzutekuak ziran  
trikitilariaiak,  
egun guzti jotzen  
jardun ziran biak;  
geldikan ezin egon  
ziran dantzariaiak,  
ematen zutelarik  
aideko txoriak;  
nere omenaldirako  
pesta geiegiak.

(4)

Egun ona izan zan  
baña bai laburra,  
juan giñanerako  
bagendun bildurra;  
Ereñozun badute  
ortarako adurra,  
"Bedeinkatua izan  
bedi zuen lurra!",  
ura izan zan egun  
artako agurra.

<sup>3</sup> Berriz Plazara I, 188. orria.

<sup>4</sup> Berriz Plazara I', 187. orria.

## BISITA

Argazkia, Oiartzungo Uztapideren etxearen, Oiartzungo Ergoien auzoko Langantzerrenea baserriaren atarian aterea da (1983ko maiatzaren 14a). "Nik, 12 bat urte izango nitten. Eskolarteko finala arratsaldean jokatu genuen Balda pilotalekuaren, eta goizean gazte pilo bat -70tik gora-, ibilaldi bat egin genuen. Batzuk, Uztapideri bisita egin genion", adierazi du Jon Eizmendi bertsolariak.

"Uztapide jada zahartua zegoen; ezin zuen hitzik ere egin. Eguzkiak ere kalte egiten zion, eta mugitzeko ere arazoak zituen. Baita jendea ezagutzeko ere", dio Eizmendik. Joxe Mari Mujika Anatx-ek ere antzeko oroitzapenak ditu. "Berarekin egon ginenean denboran, ez zuen ahorik zabaldu. Gogoan dut guitariko batzuk bertso batzuk bota genizkiola. Bisita haren ostean, orduan Hernanin apaizzen Iñaki Aranzadirekin topo egin, eta 'Manuel zaharra'ren egoeren berri eman nion", gaineratu du Anatx-ek.

Argazkian, Uztapiderekin batera, Jon Eizmendi –ezkerretik hasita lehena–, Felix Iñurrategi mendizalea, Joxe Mari Mujika "Anatx", Iñaki Sarasua, Jon Iñaki Izarzelaia, Xabier Euzkitze, Arantzazu Loidi eta Danel Goikolea ageri dira. Uztapideren azken argazkietaikoa dela esaten da handik hogeita bost egunetara zendu baitzen (1983ko ekainaren 8an).



# CRÓNICA 2012ko KRONIKA

## URTARRILA / ENERO

- 19.284 herniar (1.213 etorkinak dira): 1.181 langabe.
- Hernani ha reducido su deuda en un 9,2 %.
- Etxebeste farmaziak egingo ditu 2012ko gaueko guardiak.
- Termalismo soziala: otsailetik abuztura bitartean termatara joateko izen emateko epea zabalik Ongintzan eta Goiz Eguzkin (urtarrilaren 16ra arte).
- Nagore Legarretaren argazkiak ikusgai Kitto tabernan.
- Pala eskola neskentzat urtarriletik ekainera.
- Udalak 10 etxebizitza alokairuan jarriko ditu.
- Hondakin gutxiago sortzeko ikastaroa egiten ari dira Urumea ikastolan (Sanmarko Mankomunitatea): *Murriztu, zirt edo zart*.
- Hernani inguruko kontuak Joxe Migel Arana eta Tomas Alonsok kontatzen dituzte *nieuskalduna.metro.es* blogean.
- Diru publikoa darabilten hainbat obratan (Galarretako proiektua, Urumeako bariantea, AHTko obra), lan baldintzak oso txarrak direla salatzen du ELAK.
- Atez ate. Egokitzeo epea luze baten ondoren espedienteak irekitzen hasiko zaizkie gaizki egiten dutenei.
- Ur erabilera (kontsumoa) behera doa dio Añarbeko Urak.
- La Diputación mantendrá abierto el centro de menores de Hernani: "Es lógico que se produzcan tensiones con los vecinos".

### Urtarrila 2 enero

- Jose Mari Aldasoro Artola "Piper" iheslari politiko hernaniarra hil da.

### Urtarrila 3 enero

- Haurrentzako ekitaldiak Biterin.
- Odol ematea anbulatorioan.

### Urtarrila 4 enero

- Condenado a 15 años de prisión y al pago de una indemnización de 150.000 euros el autor del asesinato de Eduardo Benítez (ocurrido en 16 de mayo de 2009).
- Haurrentzako jokoak eta merendola Portu auzoan.
- Marrazki lehiaketa umeentzat (Hernani Bidaia). Sari banaketa: Aiora Mazizor Port-Aventurara eta Alaitz Tejedor, Iker Iriondo eta Ekain Mitxelenari maleta bana.

### Urtarrila 5 enero

- Errege kabalgata.

### Urtarrila 6 enero

- Cross Internacional del Día de Reyes
- (Gimnástica de Ulia);
- buena actuación de los atletas hernaniarras en categorías alevín, infantil y juvenil.

### Urtarrila 7 enero

- II Masters individual ORONA en Galarreta: Ezkurra txapeldun.
- Bertsolata: Bertso Jaialdia Biterin.

### Urtarrila 7-8 enero

- Montañero hernaniarra herido en el Pirineo oscense.
- Zinea Biterin: "No habrá paz para los malvados" eta "El oso Yogui".

### Urtarrila 8/15 enero

- XXXIII Campeonato de caza menor con perro en Epelerreka y Usoko erreka.

### Urtarrila 9 enero

- Udalak bilerak egiten ditu auzoka; helburua herritarren eta Udalaren arteko komunikazioa bultzatzea da.

### Urtarrila 9-23 enero

- Oleo erakusketa Biterin: Papytsho Mafolo Pongo (arte afrikarra).

### Urtarrila 10 enero

- Guatemalan Hernaniko Udalak diruz lagundutako proiektuaren aurkezpena Biterin: *Tejiendo sueños en Guatemala: una educación para la vida* (Miquel Cortes, Fe y Alegría).
- Pelota: Hernaniko Lau eta erdiko txapelketako finalak kiroldegian.

### Urtarrila 11 enero

- Gazte Txokoa: sukaldaritzza ikastaroa.

### Urtarrila 12 enero

- Saharan bizi duten egoera ezagutzeko parada Txantxangorrin (Mundubat Elkartea, Hernaniko Kooperazio Taldea).

### Urtarrila 13 enero

- Kontzentrazioa Zinkoenean: *Euskal presoak etxera* (LAB).
- *El Enegrama: conocer y comprender el ego para poder ir más allá* hitzaldia Sasoiko egoitzan.
- Enkartelada plazan: *Errepresaliatuak etxera* (AAM).

### Urtarrila 13-15 enero

- Zinea Biterin: "Criadas y señoras" eta "Arthur: operación regalo".

### Urtarrila 14 enero

- Kalez kale kantari.
- Uholdeei aurre egiteko neurriak hartu ditzaten martxa antolatu du *Urumearen Aldeko Bizilagunak* plataformak; Hernaniko 6 elkartek parte hartzen dute.

### **Urtarrila 14-15 enero**

- Eski ikastaroa: iraupen eskia eta alpinoa (Mendiriz Mendi).

### **Urtarrila 15 enero**

- Gazteen irteera Hernani ezagutuz ekimenaren barruan: Hernani-Saratsain (Mendiriz Mendi).
- Ur ludoteka kirolegiko igerileku.
- Atletismoa: Bolunburu krossa (Eibar), podium osoa hernaniarrentzat. Jasone Sertutxa Gipuzkoako txapela irabazten du jubeniletan, 200 metrotan.

### **Urtarrila 15/19 enero**

- Gari Arruarte presoaren aldeko sinadura bilketa: gaixo dago eta ez dizkiote behar dituen mediku frogak egiten.

### **Urtarrila 16 enero**

- Son modificadas las paradas de autobús de la zona de Akarregi.

### **Urtarrila 17 enero**

- Condenan a SIDENOR (antes, ACENOR o P. Orbegozo) a indemnizar a un trabajador por silicosis.
- Literatur solasaldia liburutegian: "Aulkia-jokoa" (Uxue Alberdi).

### **Urtarrila 18 enero**

- Ertzaintzak adin txikiko gazte bat atxilotu eta hiru neska inputatu ditu, adingabeak babesteko zentroan.
- Berriketan proiektua Ereñotzun: adineko pertsonak elkartu, istorioak kontatu, eskulanak egin...

### **Urtarrila 19 enero**

- Tabernetako Bertsolari Txapelketa Garinen: Oier Iurremendi txapeldun.

### **Urtarrila 20 enero**

- Kontzentrazioa Zinkoenean: Gaixo larriak eta kondena osoa betea duten presoak etxera (AAM).

### **Urtarrila 20-22 enero**

- Zinea Biterin: "La voz dormida" eta "Arthur: operación regalo".

### **Urtarrila 21 enero**

- Paleta goma: Euskal Herriko kluben arteko Txapelketa; Irazustabarrena-Huizi txapeldun, jubenil mailan.
- Gazte Txoko: zinemara irteera.

### **Urtarrila 22 enero**

- Arraina eta ardoaren (Bizkaia eta Arabaren arteko) ibilbideko lehenengo etapa (Mendiriz Mendi).
- Txotx denboraldiaren irekiera Josune Bereziartuk egiten du. Pakete turistikoa martxan ("Erdi Aroko Hernani" eta "Sagardoa" ibilbideak).  
Se constituye "Ondoloin Taldea", grupo de ciudadanos preocupados por las molestias que se producen durante la temporada de sidrerías.  
Hernaniko Txoko Feministak eta Kafeta Feministak dei egiten dute, txotx denboraldian gertatzen diren jarrera matxisten aurrean erantzutera.

### **Urtarrila 23 enero**

- Baserriko esnekiak saltzeko makina Urbietako kalean, esne makinaren ondoan.
- Hernani Arraun Elkartea denboraldia hasi du: 60 arraunlaritik gora Hernanin.

### **Urtarrila 25 enero**

- Eskola Agenda 21 udalentxeen: herriko ikasleek hainbat eskaera egiten dute.
- Las instituciones dan por cerrada la negociación con la familia Chillida en el intento por reabrir Chillida Leku.
- La justicia francesa falla que Joanes Larretxea sea entregado a Madrid para ser juzgado por la Audiencia Nacional.
- Kalerazeak LUMA enpresan: langileak kontzentrazioa egiten dute Eziaigo poligonoan.

### **Urtarrila 25-26 enero**

- Gazte Txoko: kutxak forratzeko tailerra.

### **Urtarrila 26 enero**

- Detenida una persona en un bar de Zikuñaga por insultos e intento de agresión.
- I. Urrezko Erremonte Gala Galarretan (Oriamendi 2010): Endika Barrenetxeak erregularitasunaren garaikurra jasotzen du.
- Nagore Legarretak "Edipotoa" argazki liburua aurkezten du Villa Ave Marian (Foto Forum).

### **Urtarrila 26-9 febrero**

- Giovanna Bittanteren bitxiak ikusgai Biterin.

### **Urtarrila 27 enero**

- Hernani'n Musik Biterin. Harkaitz Cano eta Beñat Barandiaran: "Sidecar arima".
- Itziar Zigak "Sexual Herria" liburua aurkezten du Ikatza liburugunean.
- Landareei buruzko tailerra (Sasoiko Zentroa).
- Kontzentrazioa plazan:  
Etxean nahi ditugu (AAM).

### **Urtarrila 27-29 enero**

- Zinea Biterin: "Un dios salvaje" eta "Alvin y las ardillas 3".

### **Urtarrila 28 enero**

- Bigaren eskuko azoka Atsegindegin.
- Euskera ikasteko kantu saioa, Txema tabernan (Banaizbagara Elkartea).

### **Urtarrila 28-29 enero**

- Cauterets-era eskiatza (Mendiriz Mendi).
- Gazte Txoko: mural margoketa, Axpi ilustratzailearekin.

### **Urtarrila 29 enero**

- Ur ludoteka kirolegiko igerileku.
- Trialsina:  
Gipuzkoako Txapelketa Fagollagan.
- Kromoak aldatzeko hitzordua plazan.
- Comida de los Quintos del 56.
- Gazte Txoko: kandelak egiteko tailerra.

### **Urtarrila 30-10 febrero**

- Aurrematrikula egiteko epea zabalik herriko ikastetxe eta ikastoletan.

### **Urtarrila 31 enero**

- Ituren eta Zubietako inauterietara irteera (AEK).
- Ipuin ordua liburutegian: Lur Korta.
- Udal Batzar Orokorra. 2012ko aurrekontua onartzen da: 29,5 milioi. "Diputazioak diru gutxiago eman izanak baldintzatzen du Udalaren aurrekontua 2012an". Lehentasuna, dirua mantentzea, Gizarte Zerbitzu eta Politika Sozialean, Hezkuntza eta Enpleguan, eta Euskeran. Hernani ha de devolver a Diputación 1,369.264,22 euros (Fondo Foral de Financiación Municipal).

## **OTSAILA / FEBRERO**

- Berrerabilpen zentroa Hernanin, bigarren eskuko gauzen denda.
- Zilegi eskolak otsailetik aurrera (Hernani eta Astigarragako AEK).
- Atletismo. Muy buenos resultados para los atletas hernaniarras en las distintas competiciones celebradas a lo largo del mes.
- Euskal Autonomía Erkidegoko lehenengo moto elektrikoa merkaturatu du Hernaniko LUMA enpresak.
- Pelota. Paul Ojuel eta Aitor Gorroxategi San Frantziskon (AEB), Euskal Selekcioarekin. Ioritz Arrietak Lezamako Torneoa irabazten du.
- "Ante el clima de inseguridad y ausencia de condiciones para realizar debidamente los servicios nocturnos" se suspende el servicio los sábados en época de sidrerías (Autobuses Garayar).
- Gipuzkoako Foru Aldundiak diru laguntzak emango dizkie uholdetan kalteak izan dituztenei.
- Diputazioak 3.000 izokin askatu ditu Urumean.
- Bola. Gipuzkoako Binakako Txapelketa: Jose Ugalde eta Miguel Burugain (Elur Txori) txapeldun.
- Hernaniko etxebizitzen % 3,5a hutsik daude (*Kepasakon-lakasa* Taldea).
- Hernani Institutua Europako *Comenius* hezkuntza proiektuan ari da parte hartzen; Bruselan egon dira 12 ikasle eta 2 irakasle (Danimarka eta Estonian ere egon edo egongo dira). Urrian, Europako bost herrialdetako ikasle eta irakasle, Hernanin.
- Añarbeko Urak obrak egingo ditu Galarretan, aberien aurrean urik gabe ez geratzeko.
- Igeriketa. Espainiako Gazteen Neguko Txapelketa: Itsaso Tolosa brontzea.
- En el pleno municipal celebrado en el mes de febrero se aprueba definitivamente el presupuesto para el año 2012 y entre otros, se modificada la ordenanza de tenencia de animales: no se realizarán pruebas de ADN a las heces de perros.
- Gimnasia erritmikoa. Maleen Martínez eta Ainhoa Gaspar lehenengo postuetan.
- Obrak direla eta, karril mozketak bariantean (hurrengo hiletan ere izango dira).

### **Otsaila 1 febrero**

- *Gidabaimena euskeraz egitasmoaren zozketak:* Mikel Bergarak eta Aitor Ortizek debalde izango dute teokikoak.

### **Otsaila 1-29 febrero**

- Curriculumak bidaltzeko epea zabalik, Udalaren lokalak garbitzeko (Limpiezas Villar).

### **Otsaila 2 febrero**

- Elurra.

### **Otsaila 3 febrero**

- Kontzentrazioa Zinkoenean: *Gaixo larriak eta kondena osoa betea duten presoak etxera* (AAM).

### **Otsaila 4 febrero**

- Akordeoi kontzertua Milagrosan: Sara Otaegi, Lore Amenabar eta Olga Morra.
- Pelota. Gipuzkoako Trinkete Txapelketa: Unai Alvarez txapeldun 2. mailan.
- Santa Ageda bezpera. Hernaniko Ohitura Zaharrak Taldea mende erdia eskean.
- Kaldereroak Elur Txori elkartetik.

### **Otsaila 4-5 febrero**

- Hernani Musika Eskolako piano joleak Andoaingo VII. Piano Jaialdian.
- Zinea Biterin: "Un método peligroso" eta "La gran aventura de Winter el delfín".

### **Otsaila 4/11/18/25 febrero**

- Faisaiak eta eperrak ehiratzera, Arabara (Txantxangorri Elkartea).

### **Otsaila 5 febrero**

- Gipuzkoako itzulia (Hondarribiatik Mutrikura) korrika egiten du Zigor Iturrieta.
- Euskal Herriko Mus Txapelketa: kanporaketak Santa Barbara elkartean.

### **Otsaila 6 febrero**

- Meditazioari buruz hitzaldia Biterin (Manuel Paz Makazaga).

### **Otsaila 7 febrero**

- Extracciones de sangre en el ambulatorio (Asociación de Donantes de Sangre).

### **Otsaila 8 febrero**

- Literatur solasaldia liburutegian: "Las hojas muertas" (Barbara Jacobs).

### **Otsaila 8-9 febrero**

- Gazte Txokoa: maskarak egiteko tайлerra.

### **Otsaila 9 febrero**

- Lau orduko lanuztea eta mobilizazioak Zerbitzu Publikoetan (LAB, ELA eta STEE/EILAS).

### Otsaila 10 febrero

- Aintzina taldeak bigarren diskoa ("Kosinatik kanberala") aurkezten du.
- Hernaniko HERRIRA mugimenduaren aurkezpena Biterin: preso eta iheslarien eskubideen alde lan egingo du mugimenduak.
- Gurasoekin topaketa seme alabak baloreetan nola hezi hitz egiteko, Inmakulada ikastetxean (Famili Pastoraltzako Batzordea).
- Enkartelada herrian barrena: *Errepresaliatu guztiak etxera* (AAM).

### Otsaila 10-11 febrero

- Gazte Txokoa: argazkiak tuneatzeko tailerra.

### Otsaila 10-12 febrero

- Zinea Biterin: "Los hombres que no amaban a las mujeres" eta "Happy feet 2".

### Otsaila 11 febrero

- Kalez kale kantari.
- Erremontea. II Sagardoaren Txapelketa martxan Galarretan.
- Atletismoa. Euskal Herriko Txapelketa: Jasone Sertutxa txapeldun jubeniletan (200 m).
- Erromeria Plaza Berrian (San Joan Konpartsua).

### Otsaila 12 febrero

- Hernani ezagutz 2012. Ibilbide gidatua: Epele (Mendiriz Mendi, Hernaniko Udala).
- Ur ludoteka kirodegiko igerilekuetan.
- XLVIII. Adarraga Memoriala Landaren: Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa eta Gipuzkoako Kross motza Txapelketa. Eider Aldabe azkarrena senior mailan.
- Iñude eta artzainak (Urumea ikastola).
- Inauterietako kontzertua udaletxeko arkupetan (Musika Banda).

### Otsaila 13 febrero

- Inicio del cursillo de socorrismo y primeros auxilios en Biteri kultur etxea (DYA).

### Otsaila 14 febrero

- Oihurik gabe nola hezi hitzaldia Elizatxo ikastolan (Esther Martínez).

### Otsaila 15 febrero

